



Stéphane Hessel

Haserretu zaitezte!
liburuaren egilea

«Indiferentziari
eta etsipenari
gerra egin
behar zaio»



- **Jesus Torquemada:** «Gaddafi azken zazpi urteetan sostengatu izanak kontzientzia gaiztoa eragin du»
- **Ghana** Gure zabor elektronikoak pozoitutako herria
- **II. Errepublika** Eibarko aldarrikapenak 80 urte bete ditu
- **Ama Lur-etik Euskal Pilota-ra** Politika jorratzeagatik jazarritako zinegileak
- **Fukushima** Segurtasun eremua Tokioraino irits daiteke datozen hilabeteetan

XABIER LETEREN OMENEZ


ANTTON VALVERDE ERRAMUN MARTIKORENA PIER PAUL BERZAITZ ARANTXA IRAZUSTA PETTI OSKARBI JON BERGARETXE LARTAUN ABESBATZA

MUSIKARIAK:

Karlos Gimenez, pianoa · Joxan Goikoetxea, eskusoinua-teklatura
Txema Garces, gitarra baxoa · Xanet Arozena, gitarrak
Francisco Herrero, bibolina · Luis Fernandez, biolontxelo

NON: Oartzunen, Elorsoro Kiroldedia
EGUNA: APIRILAK 16 · Larunbata · 21,30etan
SARRERAK: Aurretik 10 € · Egunean 12 €

SALMENTA LEKUAK: Oartzun (Amazkar, Txokolategia, Kiroldedia, Garmendia Okindegia, Miren taberna, Ganbara taberna).
Irun (Hazia taberna), Hendaia (Kanttu ostatua), Lesaka (Arranoa), Olereta (Arkaitza eta Landare), Lezo (Tiñelu taberna),
Donostia (Hontza eta Herria), Hernani (Garin eta Aralar), Tolosa (Raku taberna).





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguana



• **NON ZER** •

2011ko apirilaren 10a, 2.272. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Amaia Zubiria:** «Mertzenarismoak agintzen du».
SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **II. Errepublikak.** Eibar, Bigarreneko lehena. JOSU CHUECA / 5

Pertsonaia

- **Stéphane Hessel:** «Egungo ekonomia zoratuta dago».
SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **E-zaborra.** Pozoitutako garapena. IÑAKI GURIDI / 15

Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 19
- **Ttakun (h)errenka** Hilik. UXUE APAOLAZA / 20
- **Kantonamendu hauteskundeak.** JAKES BORTAIRU / 21
- **Hiruko txikian** Ezin nuen. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Kutxek euskal kulturaren alde egindakoa.** OIER ARAOLAZA / 22
- **Txandan** Oinarria. ANDONI MUJICA / 22
- **Zirtak** Argiak itzali zuena. PATXI ZUBIZARRETA / 23
- **Bertso berriak** Beste akta. XABI PAYA / 24

Erdiko kaiera

- **Zinema.** Eraso politikoak istorio deserosoci.
MIKEL GARCIA / 25
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** ESTITXU EIZAGIRRE / 31
- **Ihesi Auritz (Nafarroa).** Karrika bat Konpostelarantz.
ITZIAR MADINA / 32
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Osasuna** JABIER AGIRRE / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Jesus Torquemada:** «Gaddafik interbentzio militarra gogortzea nahi du». MIKEL ASURMENDI / 41
- **Fukushima.** Emigratzea da bide ziur bakarra japoniarrentzat. JOXERRA AIZPURUA / 44
- **Saad Salloum, irakiar etnien eta herrien ikerlaria:** «Petrolio ez, kultur aniztasuna da irakiarren altxorrik handiena». KARLOS ZURUTUZA / 46
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 48

Azkena

- **Norabide argian, uztarrian.** IÑAKI ANTIGUEDAD / 50



“Mertzenarismoak agintzen du”

Amaia Zubiria | Irailaren 11n jaioa

Ez dago ozen hitz egin beharrik gauzak garbi esateko.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Inkesta guztien arabera, kantari gazteak daude modan.

Komunikabideek haragia behar dute, eta saltzen dena haragi gaztea da. Hori bai, *kleenex*-aren kultura ere oihalezko muxu-zapiak irauten du.

Edo babes politiko eta soziala duenak!

Hori ez nuen garaiz ikasi, baina ikasi izan banu ere, ez nintzatekeen sekula lerrokatuko. Inon kokatzen ez dena larritasunera kondenatuta dago, eta hori, hil arte ordainduko dut.

Zenbat gustatzen zaidan atzamarra zaurian sartzea...

Ez komunikabideek, ez erakundeek, ez dute euskal sormena zaindu. Ahazturik, zokoraturik eta abandonaturik eduki gaituzte. Baina orain 30 urte herria aldarrikatzea utopia bazen, eta gaur ez bada, zeinena da meritua?

Ez da gure herria munduarekin homologatzeko ahalegin subentzionatuan ari direnena izango?

Saltzeko moduko kondaira eta misteriorik ez baduzu ez zara ezer. New Yorken bizi eta arrakasta erlatibo bat lortu izan bagenu, hemen askoz baloratuagoak izango ginatke.

Ai ene, marketinak hilko gaitu.

Garenak gara, orokorrean jendeak maite gaitu, baina ez dakigu gure buruak saltzen, eta okerreana da horretaz harro gaudela.

Guk ez dugu arrakastarik nahi, mundua aldatu nahi dugu!

Baina mertzenarismoak agintzen du. Ordaintzen duen publikoaren zati handiena aburgesatuta bizi da, ez du gehiegi pentsatu nahi, eta errazena eskatutakoa ematea denez, ustezko arrakastak usteltzen du dena.

Bai, esadazu arrakastaren formula topatu eta uko egin diozula!

Bizi zaitez topikotik, zutaz espero dutena egin, ez aipatu sekula zure benetako sentimendurik, ez aldatu ezer... Nik kontrakoa egin dut beti, eta horrela doakit!

Segi abesti triste eta dramatikoak egiten, beraz.

Bizitza osoa daramat nire kikiltasuna gainditzeko, katarsiak sortzeko bideak jartzen. Zergatik ez dut kantatuko nire maitaleen eraginaz, homosexualitateaz, edo gauaz, errealitate horiek hurbiletik ezagutu baditut? Kreatzioaren funtsa gudan dago.

Jakingo bazenu zein ederki geratu zaizun...

Zer erru daukat nik lehen aipatutako publiko hori euskararekiko galbanizatu bada, eta kontzeptu berriak zailak bazaizkio? Ez dago besterik, jende horrek erdarazko boletorak gure kantuak baino hobeki ulertzen ditu.

Ikusten dut bai, azkeneraino gerra emateko zaudela.

Ez nuke nire buruaren jabe izan gabe bizi nahi. Hala ikusten nauzuenean, norbaitek lagun nazala... ■

II. Errepublika

Eibar, Bigarreneko lehena

Espainian oso ohikoak izan dira aldaketa politikoak, baina egitura sozioekonomikoa aldatzea ez da hainbestetan gertatu. Goi mailako agintariak txandakatu izan dira, estatu kolpeen edo aldez aurretik “atondutako” hauteskunderen bidez. Bi salbuespen daude. Bata, Isabel II.ak hanka egin ondorengoko Seiurteko *Demokratikoa*, 1873-1874ko esperientzia errepublikarrarekin amaitutako hura. 60 urte geroagokoa da bestea: Primo de Riveraren diktadura amaitu ostean aldarrikatutako II. Errepublika, *Neska polita* deiturikoa. Aldarrikapenak 80 urte beteko ditu hilaren 14an.

JOSU CHUECA

AIPATU SALBUESPENAK indarkeriarik gabe jaio baziren ere, bortxaz hil zituzten. Lehen hilketak Paviaren eskutik etorri zen, 1874an; bigarren krimena Francok eta enparauek egin zuten 1936an, gerrarekin. Bitxia da beraz, historiaren orrialdeetara iraultzailatzat eta

erradikaltzat igaro diren prozesu demokratiko horiek odol tantarik isuri gabe eta festa giroan iritsi ziren, eta aldiz, indar kontrairaultzaileek bortxaz amaitu zituzten.

1868ko eta 1931ko aldaketak ez zituzten agintari militarrek bultzatu, eta hortaz, errege



1931ko apirilaren 14a Eibarren, arratsalde. Udaletxe aurrealdean xfla bat jarri zuten plazaren izena aldatzeko: Alfonso XIII izatetik Errepublikaren Enparantza izatera pasa zen.



OJANGUREN



OJANGUREN

familia eta haren hurbilekoak lasai asko joan ahal izan ziren mugaz bestaldera, goizago edo beranduago itzultzeko segurantzarekin; Juan Carlos Borboikoa da horren lekuko.

Donostiako bilera antimonarkikotik Errepublikaren ateetara

Duela 80 urte II. Errepublika ezarri zeneko historia ezin da lerro bakarrean azaldu. Esan daiteke honako hau: erregeak abdikatu egin du eta Errepublika ekarri dute. Edo alderantziz ere bai: Errepublika sortu delako erregeak agintea utzi du. Baina interpretazio desberdin horiek jatorri bera dute: Alfonso XIII.ak Primo de Riveraren diktadura lagundu izanak monarkia deslegitimatuz zuela, alegia. Horren aurrean, politikan ari ziren ezkerreko erakunde guztiak, hau da, talde

Errepublika aldarrikatu eta egun batzuk geroago, maiatzaren 3an, Hiri txit eredugarri izendatu zuten Eibar. Ekitaldira Prieto (argazkian), Unamuno, Marcelino Domingo... bertaratu ziren.

errepublikar ugari eta baita langileak biltzen zituzten PSOE alderdiak eta UGT sindikatuen artean, irtenbide demokratiko erradikala adostu zuten: Errepublika ezarri eta behin-behineko programa bateratua prestatzea.

Hainbat ekimen ezkutuan landu bazituzten ere —1930eko abenduako mobilizazio orokorra esaterako, Jakako altxamenduaren porrotarekin amaitutako hura—, beste agerraldi askotan argi eta garbi adierazi zuten, aldaketa politikoa eta soziala erdiesteko, Errepublika zutela helburu. *Donostiako Hitzarmena* (1930eko abuztuaren 17an) izan zen garrantzitsuenetakoa. Donostiako Garibai kaleko 4. zenbakian Unión Republicanak zuen egoitzan ondorengoak bildu ziren: Fernando Sasiain anfitrioiak —gero Donostiako alkate izandakoa—, Manuel Azaña, Alejandro Lerroux, Marcelino Domingo eta Santiago Casares Quiroga errepublikazaleak, Jaime Aiguade eta Manuel Carrasco Formiguera katalanistak, eta Fernando de los Ríos eta Indalecio Prieto sozialistak. *La Voz de Guipúzcoa*-k bilera “antidinastiko” horren berri eman zuen bere orrialdeetan, eta hurrengo egunetan prentsa oharra kaleratu zuten bertaratutakoek, ezkutuan ibiltzeko asmorik ez zutenaren seinale. Are gehiago, PSOEren parte-hartzearekin, Elkargo Errepublikar Sozialista (itun antimonarkikoa) gogor aritu zen 1931ko martxotik aurrerako hauteskunde kanpaina, Errepublika aldarrikatzea ardatz politiko nagusi zuela. Hauteskunde horietarako, gobernu monarkikoak kalkulu zehatza



Goiko irudietan, Juan de los Toyos Eibarko udaletxeko balkoitik, apirilaren 14an, arratsaldeko ekitaldian, nahiz eta askotan esan izan den goizeko 6:30ean ateratako argazkiak zirela, errepublikaren aldarrikapen unea.

egin zuen Juan Bautista Aznarren eskutik: asmoa zen 1923ko egitura politikora bueltatzea, eta horretarako udal hauteskundeak aproposak ziren, pentsatzen baitzuten jauntxokeria lokala lagun izango zutela eta betiko indar eskuindarren alde egingo zutela bozka emaileek. Aldiz, errepublikar eta sozialistek Erregimenaren aldaketaren beharra azpimarratu zuten, mitinetan, panfletotan eta agerraldi politiko guztietan. Irungo errepublikarrek ondo asko laburbildu zuten monarkia edo errepublikaren arteko hautua egitearen garrantzia:

“Ara errepublika zer dan, Errepublika da Jaungoikoak gizonari eman dion eskubide bat inok ezin kendu lezaken moduan, erriyari dagokion gauzak antolatzen ditun batzar bat. Batzar edo elkarte ortan, guziok berdiñak dira eta gizalegeari, dagokion lez, guzion artetik aukeratzen dute buru egin dezan, gizon zintzo ta jakintsu bat. Guzoi berdin begiratu dietena. Bait kendu eta besteari eman egingo ez dubena. Eta guziok aukeratu badute buru bezala, berdin kenduko dute dagon tokitik bihar bezela gauzak egiten ez ditubenian edo bere denbora

**“Eibarko ur ttantta horrek
Madrilgo gertaerak azkartu
zituen, batzuen dardar apalak
mendiko elur jausia sorrarazten
duen legez”**

TORIBIO ALTZAGA, SOZIALISTA

igaro dubelako beste bat aukeratu dutenian. Eta Errege zer da? Ara: Errege izaten de erriko buru egiten duben jaun bat: Erriyan agintzeko Jaungoikoak eskubidea eman diola esaten duben gizon bat. Berari komeni zaion moduan antolatzen dituna erriko gauzak, berak aukeratzen ditulako nai ditun agintariak eta abek bere esana egiten dutelako. Nabiz txotxolo bat izan, bizirik dagoen bitartean errege izaten dana eta bera iltzean, bere seme edo alaba, nabiz bera baino txepelagorik izan, erriko buru usten jaun bat. Eta berari milioi mordo bat ematia naikua ez dala, seme emazte, anai eta abar guziei beste hainbeste milloi bihar zaian sendi bat”.

Eskuindarren kanpaina ez zen hain ausarta izan, baina azkenean erantzun egin behar izan zioten auzi horri. *Diario de Navarra*-k apirilaren 12an, udal hauteskudeen egun berean, honakoa zioen: “Bozkatzera, anarkia den iraultzaren aurka! Sobietari bidea irekiko dion Errepublikaren aurka!”, eta Donostiako *La Constancia*-k, berriz, beste honekin akuilatu zituen bere irakurleak: “Unea iritsi zaigu adierazteko ea Donostia monarkikoa ala errepublikarra den”.

Zientziaren kutxa **Guneko simulagailu berrietan, dibertsioa ziurtatuta duzu!**

- 4 plazako bi plataforma.
- 9 pelikula ezberdin eta joystick-arekin gidatzeko aukera.

gizarte kutxa
ZUGANDIK ZUGANA

ZIENTZIAREN KUTXA GUNEA
KUTXA ESPACIO DE LA CIENCIA

Donostia - www.kutxaespacio.es - 943 012 478

II. Errepublika

Horrela elikatu zuten hauteskundeetako giroa batzuek eta besteek. Baina apirilaren 12an emaitzak ezagutzen hasi bezain pronto, errealtatea zein zen antzeman zuten askok. Juan Bautista Aznar gobernuburuak esaldi borobil batekin deskribatu zuen gertatutakoa: “Espainia, monarkiko oheratu eta errepublikar jaiki da”.

Zalantzak, trikimailuak eta mugimendu politikoak izan ziren hurrengo orduetan, Gobernuarentzat eta monarkiarentzat irtenbidea bilatzearen. Denetatik argudiatu eta proposatu zen kinka horretan: bozketa konstituziogileak burutzea, behin-behineko gobernu osatzea, konstituzionalistekin gobernu indartzea... edozer gauza monarkiaren eta errepublikaren artean erabaki beharra saihesteko. Aukera horiek guztiak jarri zizkioten mahai gainean Alfonso XIII.ari. Baina ordurako Errepublikaren aldeko keinuak nagusitzen hasiak ziren hiriburuetan eta herri askotan; *Marseillaise* ahoan eta txano frigiarrak buruan, apirilaren 13ko arratsaldean lehen manifestazioak hasi ziren. Askok presoaren askatasuna eskatzen zuten, baita aldarrikapen errepublikarra Estatuaren gailurrera eramatea ere, tokian tokiko garai-pena garaipen orokor bihurtuz, eta Erregimena aldatzera derrigortuz.

Eibarko aldarrikapenaren sekuentzia osoa

Baina nola egin hori? Eibartik erantzun zioten modu zuzenenean galdera horri, apirilaren 14ko lehen orduetan. Herri horretan errepublikar eta sozialistek ia erabateko nagusigoa lortu zuten. Donostian eta Irunen ere ezkertiarrek irabazi zuten, baina monarkikoen eta neutralen gutxiengo nabarmenak zeuden oraindik. Gipuzkoako hiriburuan, esaterako, 14 zinegotzi ziren monarkikoak, eta Bidasoaldeko herrian 10 ziren erregearen aldekoak. Eibarren, 19 zinegotzitatik, errepublikar-sozialistek 16 eskuratu zituzten eta gainerako hiruak EAJrenak ziren. Herri *armerroan* ez zen oposizio esanguratsurik, beraz.

Errepublikar eta sozialisten arteko indar erlazioa parekatua zegoen Eibarren –zortzina zinegotzi talde bakoitzak–, baina sozialistek hartu zuten Errepublika aldarrikatzeko iniziatiba. Madrildik eta Donostiatik heldutako aginduei jarraituz hautatu berri eta sozialisten buru zen Juan De los Toyosek eman zuen erregimen berria aldarrikatzeko lehen urratsa.

Berak jo zuen goizeko 4etan errepublikarren buruarengana, Domingo Cortazarrengana, esanez lehenbailehen bildu behar zirela. Era berean, herriko gauzainen bidez, De los Toyosek gaitz nontzeko hautetsiak deitu zituen *Casa del Pueblo*-n bildutako. Han azaldu ziren goizeko 5etan, eta buruzagi sozialistak egoeraren berri eman zien. Udaletxera joan aurretik, bildutakoek ardurak banatu zituzten eta Errepublika aldarrikatzea erabaki zuten.

Esan eta egin. Goizeko 6ak eta 6:30ak artean, aldamenean zegoen udaletxera abiatu ziren eta Udal berria ofizialki osatu ostean –Alejandro Telleria jarri zen alkate–, Errepublika aldarrikatu zuten. Horixe adierazi zuten balkoi nagusian hiru koloretako bandera eskegiz.

Plazan bildutako jendearen aurrean egin zuten ekitaldia, pentsatuz beste lekuetan ere gauza bera ari zela jazotzen. Tokian tokiko aldarrikapenak aldaketa orokorra ekarriko zutela uste zen, eta Eibarrera iritsitako agindua –Errepublika aldarrikatzea, alegia– beste herrietan ere betetzen ari zela pentsatzen zuten goiz hartan Eibarko udaletxean zeudenean.

Baina ordu luzetan Eibar izan zen aldarrikapen errepublikarra piztu zen leku bakarra. Arratsaldeko lehen orduak arte ez zen beste inon antzekorik gertatu. Arratsaldean, ordea, Bartzelonak segitu zion Eibarrek hasitako bideari; Lluís Companysen udaletxetik eta Frances Maciasek San Jaume jauregitik, bandera errepublikarra zabaltu eta Kataluniako Errepublika aldarrikatu zuten. Jakina, Bartzelonako oihu hark, oihartzun handiago izateaz gain, lurrikara politikoa sortu zuen. Alde batetik Bartzelona zelako, eta bestetik Maciasek, Kataluniako Errepublikarekin, nabarmen gaintu zuelako Donostian hitzartutako autonomiaren xedea.

Aldarrikapen horiek azkartu egin zituzten egun horretako mugimenduak, behin betiko irtenbide politikoa lortzeko bidean. Ondorioz, izan Parlamentu Konstituziogile batekin, izan beste hauteskunde batzuekin, edo izan kontzentrazio gobernu bat eratuta, monarkia nola edo hala mantentzearen alde



Donostiako *La Constancia* egunkariaren azala apirilaren 12an, hauteskunde egunean: monarkiaren eta errepublikaren arteko auzia nabarmendu zuten.

zeudenek amore eman zuten. Jabetu ziren, Alfonso XIII.ak etorkizunean errege aulkiari eutsi nahi bazion, Estatuan agintzeari utzi behar ziola, modu probisionalean bazen ere. Gainera, errepublikar-sozialisten ikuspegitik, erregimen berria lehenbailehen eratu behar zen kontu hark gainezka egin ez zezan, Katalunian gertatu bezala.

Eibarren, apirilaren 14ko arratsaldean, garai-pena ziurtatuta zegoela jakitearen lasaitasunarekin —ordurako Madrilgo Puerta del Solen bertan ere jendetza bildu zen II. Errepublikaren etorrera ospatzeko—, bigarren elkarretaratzea egin zen udaletxearen aurrean. Alfonso XIII izeneko errotuluaren gainean, Errepublikaren Enparantza idatzi zuten xafla batzuen bidez. Erregea oraindik Madrilen zegoen, baina berehala hartu zuen erbesterako bidea, Cartagenatik Marseillaraino. Plazaren izendapena aldatzeko uenean, Juan De los Toyosek eta beste batzuek herriz herri eta aldarriz aldarriz hedatzen ari zen Errepublikaren berri eman zieten bertan bildutakoei. Ilunabarrarekin, antzeko manifestazioak orokortu ziren Espainiako Estatu osoan. *La Marseillaise*, *Gernikako Arbola*, *Riegoren Himnoa* eta beste zenbait ereserki errepublikarren zituzten manifestariak bandera errepublikarra astinduz, eta festa nagusitu zen nonahi. Arrazoi osoz, urte batzuk geroago, honela

idatzi zuen Toribio Alzaga sozialista eibartarrak erbestetik:

“Eibarko ur ttantta horrek Madrilgo gertaerak azkartu zituen, urrats batzuen dardar apalak mendiko elur jausia sorrarazten duen legez”.

Aitzindaritzaz horrekin, nazioarte-

ko komunikabide ugari aipatu zuten Eibarren gertatutakoa, “Saint Sebastien probintziakoa” zela zehaztuz. Espainiako Gobernuak berak *Hiri txiki eredugarri* izendapenarekin ohoratu zuen 1931ko maiatz hasieran, Marcelino Domingo, Miguel Unamuno, Indalecio Prieto eta Gonzalo Queipo de Llano lekuko zirela. Bitxia da, Queipo de Llano militarra izan baitzen urte batzuk geroago Errepublikaren aurka matxinatu zen militarretako bat. Errepublika “herriaren emaitza” zela esaten zuenak, bost urteren ondoren jan egin zituen bere hitzak, Espainian izandako saio demokratiko sokena hondoratzeko lanean aritu baitzen.

Noski, 1936ko Gerran, frankistek berehala kendu zioten titulua Eibarrri, “Fronte Popularraren eta euskal nazionalista traidoreen eskutik gelditzen zen (Gipuzkoako) azken herriari”, hain zuzen. 1937ko maiatzaren 3an, zinegotzi frankistek “aho batez Errepublikak emanikoa ezabatzea” eskatu zuten.

Baina izendatze eta desjabetze guztien gainetik, historia handi egiten duten txikien artean, Eibar izan zen lehena. Monarkia eta demokrazia funtsezko kontraesana direla jotzen dugunok, Eibarren 1931ko apirilaren 14 hartan gertatu zena, ahaztezina izateaz gain, guztiz eredugarritzat dugu. ■



Alfonso XIII.aren karikatura *L'Esquella de la Torratxa* agerkarian: Parisko erbestetik herrimenez.



HOTELA IRIARTE JAUREGIA ****

Bidania (Bidegoian) Gipuzkoa • Tel.: 943681234
www.iriartejauregia.com

Stéphane Hessel

«Egungo ekonomia zoratuta dago»

“Agure zahar batek zion...”.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

“Beti egon naiz disidenteen bandoan”. Zer da, printzipio bat ala konstatazio bat?

Seguru aski nire sorterriari zor diodan printzipio bat. Berlinen jaio nintzen, eta Berlineko gazteak, Parisekoak bezala, borondatezko lotsagabekeria darama zainetan. Hori gutxi ez, eta moral zorrotz baina konformagaitza txertatu zidan familia aurrerakoi batean sortzeko zoria izan nuen, eta beti sentitu dut nigan disidenteeekin bat egiteko desira. 1937an, Frantziako armadak gerrara deitu ninduenean, nire burkideek baino izu eta nazka handiagoak sentitzen nituen Hitler-en aurrean. Banekien, alemanek fuhrer-ari kasu egiteko aukera handiak zeudela, Alemaniaren handitasun, ospe eta etorkizun oparoa laudatzen zuen diskurtsoa gustagarria baitzen belarri kamutsentzat. Ordurako, ez nengibilen alferrik nazismo eta faxismoen aurkako borroka pazifikoa. 1917an sortua naiz, Lehen Mundu Gerra garaian, eta bigarren gerra baten oihartzuna izu-ikara zen guretzat. Ez genuen alemanek Hitler desaktibatzerik lortu, gerra lehertu zen, eta lubakietara joan beste erremediorik ez nuen izan. Gerra galdu zutenetakoa naiz, tropa alemanek La Sarthe departamenduan zegoen nire sekzioa irentsi baitzuten. Handik Marseillan lur hartu nuen, eta handik eta hemendik, 1941ean, Londresera heldu nintzen, De Gaulle jeneralaren ondoan Frantzia librearen aldeko erresistentzian aritzeko.

Hortik aurrerako zure gerra sasoiko ibilbideak filma dirudi.

Hiru urte Londresko espioitza eta informazio bulegoetan lan egin ostean, 1944ko martxoan itzuli nintzen Parisera espioitza misio sekretu baten baitan. Nire kide bat Gestaporen eskuetan jausi zen ordea, eta torturak eki-

ditearren nirekin hitzordua jartzera konprometitu zen. Hantxe atxilotu ninduten, torturatu, eta Buchenwald-eko exterminio esparrura urkatzera eraman. Egun handiaren bezperan, alta, geunden esparruan tifusak hil berri zuen frantses baten identitatea neureganatzea lortu nuen, urkamendia saihestuz. Handik, nire izen-abizen berriekin, Rottleberodeko kontzentrazio eremura deportatu ninduten, eta ihes egiteko saiakera batean berriz atxilotu ostean, gogorrenetan gogorrera kontsideratzen zuten Dorako esparruan eduki ninduten. Handik ospa egin eta Pariseraino heltzea erdietsi nuen alabaina, eta gauzak zer diren, Buchenwarlden bizitza salbatu zidan medikuaren semeak itzuli du *Haserretu zaitezte!* alemanera.

Zer pasatzen zaio pertsonari burutik urkatze bezperetan?

Parisen agente sekretu franko-britainiarra izanda atxilotu nindutenean, bukatu zela,

Nortasun agiria

1917ko urriaren 17an jaio zen Berlinen, 7 urterekin Parisera etorri eta gerora frantses nazionalitatea hartu bazuen ere. Bigarren Mundu Gerran, erresistentziako lider, ondoren diplomazia karrera luzea du egina, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren eraketan parte hartuz, edo Nazio Batuetan Frantziaren enbaxadore izanez. Bestalde, zenbait libururen egilea da, tartean, iaz atera zuen eta salmenta markak hautsi eta hizkuntza anitzetara (tartean euskarara) itzulia izan den *Haserretu zaitezte!*





nireak egin zuela, pentsatu nuen. Gerran etsaiak ez du eskura duen agenterik bizirik uzten. Une horretan etsi egiten duzu, errenditzen zara, baina era berean, bukaerari adorez aurre egiteko grina eta harra sentitzen duzu sabelean gora. Duintasuna ez galtzean datza zure borroka, zure gorputzaren kontrola galdu dezakezu, baina burua argi mantentzea da uneoroko eginkizuna. Salbatzeko zorte izugarria behar duzu, baina burua argi izanda soilik jo dezakezu zortearen aldaba.

Gerrarena itxi eta ibilbide diplomatikoaren atea ireki zenuen, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren idazketan parte hartuz.

Frantziara itzultzean, 1945ean, oposaketak gainditu eta berehala hasi nintzen Nazio Batuen idazkaritzan lanean. Gerora hainbeste zeresan eman duen Giza Eskubideen Deklarazioa izan zen gure lehen erronka nagusia. Hastapenean deklarazioa ez zen loteslea, baina ondotik etorri ziren eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen inguruko pakto lotesleei esker gure lanak indarra hartu zuen. Horrek zer esan nahi duen? Estatuak presionatu daitezkeela, eskubide horiek errespetatzen ez badituzte afera gaiztotu litekeela garbi utziz. Presio bide indartsu baina gobernu ahulak dauzkagu oster, eta Nazio Batuen Erakundean 193 Estatu dauden arren, 15-20 baizik ez dira benetako demokraziak. Hori gutxi ez eta Frantzia edo Espainia bezalako demokrazietan ere badaude asaldatzeko eta haserretzeko motiboak, orain dela 65 urte aldarrikaturiko

eskubide horiek inoiz edo behin zapalduak baitira. Herritarrek zeresan handia daukate, alta, eta edozein unetan esan diezaiokete Estatuari “kontuz, marra gorria gainditu duzue, ez gatoz bat”. Zibismoaren emendatze argia gertatu da azken mende erdian, eta horrela soilik mantendu daitezke demokraziak bizirik. Hala ere, gazteen artean badago etsitzeko, paso egiteko, joera bat oso larria iruditzen zaidana. Beti dago zer borrokatua, zer defendatua, eta horrek hala izaten jarrai dezan, indiferentzia eta etsipenari gerra egin behar zaio.

Nola egiten da hori?

Egia da borrokatu dezakezula bakarka, idatzi dezakezula, botoa eman, elkarte bat lagundu, baina askoz eraginkorragoa da taldeak osatu eta elkarlanean aritzea. Gaur egun, komunikatzeko medio berriek esker, mundu osoko jendearekin eraman dezakezu aldarrikapen zehatz baten aldeko bataila aitzinera. Facebook eta abarren indarra izugarria da, eta akatsak eta gabeziak dituzten arren, arras tresna baliosak dira egoki erabiliz gero. Garbi dagoena da haserretik sortzen dela engaiamendua, eta engaiamenduak dakarrela ekintza. Lehenik zerk asaldatzen zaituen pentsatu behar duzu, han eta hemen harramazka aritu fibra ukitzen dizunaren bila. Xerka eta xerka, etorkinen kausarekin topo egin zenezake, eta Europako herri askotan “euren etxean geratu daitezela!” bezalako oihaak geroz eta sarriago entzuten direla ondorioztatu. Horri buelta eman, eta geroz eta mugimendu handiagoko

munduan bizi garela jabetu behar gara, eta mugimenduaren igurtziak positiboki bideratzeko gai izan. Zergatik ez gara ohitzen datozenekin eta doazenekin harreman sanoak ukaitera eta goazen lekuan begirunez gure buruaren jabe izatera? Noiz helduko gara gizarte multietniko eta kultur anitz batera? Ez ditugu gazteak arrazista eta xenofobo bihurtu behar, baina ez dakit Estatu zenbaiten egungo politikak heziketa hori bultzatzen duen.

Indiferentzia eta etsipenaz gain, ez ote dago herritarrengan botere edo Estatuetik beldurra?

Beldurra baino gehiago mesfidantza. Ados, gobernatuak izatearen truke gobernu hautatuko dugu, baina behin aukeratuta gobernu horrek benetan egiten ote du egin beharko lukeena? Zergatik da buruzagi politikoen miresmen eta atxikimendua inoiz baino urriagoa? Esaterako, nork dauka Sarkozy gizon handitzat? Frantzia txistetzat daukate, eta kanpoan barre egiten diote. Hori hala, lider karismatikoenak ere beti izan ditu zailtasunak, normalena baita Estatuak herritarra erabat ez asebetetzea, eta agian horrek bihurtzen du herritarra demokraziaren bulkadaren motorra. Horregatik diot gazteek erresistentzia espiritu hori mantendu behar dutela, eta erresistentzia estuki lotuta dagoela sormenarekin. Ezin gara sortuta dagoenarekin konformatu, beti sortu liteke hobetzeko zer-bait. Esaterako, mundu harmoniatsuagoa sortu genezake. Ni bereziki haserre nago gure mundua kudeatzen den moduagatik. Ez dugu gure lurra batere zaintzen, ustiapenaren izenean planeta txikitzen ari gara, eta batzuk ezin asez ari diren bitartean, oraindik ere jendea gosez hiltzen da. Munduko ekonomia

finantzarioek kudeatu ezinezko mundua eragin dute, estatuak arautu gabeko ekonomia bat zoratu egiten baita, eta egungo ekonomia zoraturata dago.

“Atxilotu, torturatu eta exterminio esparrura urkatzeran ninduten. Egun handiaren bezperan, tifusak hil berri zuen frantses baten identitatea neureganatzea lortu nuen, urkamendia saihestuz”

Horregatik diozu, mende hasieratik hona, erresistentzia garai-ko lorpen sozialen inguruko atzerapauso handiak ematen ari garela?

Bigarren Mundu Gerraren osteko 30-40 urteak aski erakitzaileak izan dira, baina azken hamar urteotan dena leihotik behera botatzen ari gara. 2001eko irailaren 11k

Estatu Batuek amorrarazi ditu, eta Nazio Batuek nahi ez zituen baina geratzerik lortu ez duen esku-hartze militarrek ugaritu dira. Era berean, Estatu Batuen botere ekonomikoa mundu mailan gailendu da eta horrek amildegian behera jarri gaitu. Egun, askoz nekezagoa da konkista sozialei eusteko behar den dirua lortzea. Hor dago erretretaren arazoa, langabeziarena, gizarte segurantzak lehertzearen daude... Horrek zer esan nahi duen? Ekonomia gidatzeko beste

eredu bat landu behar dugula, askoz sozialagoa, ekologikagoa. Begira zer gertatzen ari den Afrika iparraldean, eta Europan ere sumatzen da Europar Batasun ultraliberal batean preso ez jausteko

borondatea. Biharko Europa ez da Durao Barrosok eraiki nahi duen bideetan eraikiko. Gezurra da Europa eraikita dagoela, ederrena egiteke dago.

Gazan ere asko dago egiteke.

Emaztea eta biok bost aldiz izan gara Gazan 2002tik hona, eta gure begiz ikusi dugu zeru irekiko kartzela dela milioi eta erdi palestinarrentzat. Ezin dute arrantzatu nahiz eta

**gametxo
HOTELA**



Gametxo Auzoa • Ibarrangelu, Bizkaia • Tel.: 94 627 77 10 • www.hotelgametxo.com

itsasertzean egon, ezin dute porlanik inportatu nahiz eta dena eraikitzeke ukan... Onartezina da. Orain, adibidez, bertara joatekoa den laguntzaz betetako barkua prestatzen ari gara, Israelen blokeoa Egiptoren laguntzarekin gaindituko dugun esperantzaz. Mubaraken gainbeherak Egipto eta Gazaren arteko harremanak berrituko dituela pentsarazten dit, baina auskalo. Nazioarteak ere 40 urte daramatza irtenbidea zein den esaten, baina ez du praktikan jartzen, ez daki nola egin, edo ez du jakin nahi. Bitartean, Estatu Batuek Israelekin laguntasun harreman oso ulergarria dute, eta ondorioz, Israel-ek ia erabateko babes-
dauka munduan. Tarteka, "aizue, hau konpondu beharko duzue, ezta?" moduko purrustadaxoa egiten zaio Nazio Batuen Erakundetik, baina gero begiak ixten ditugu berdin segitzen duen egoeraren aurrean. Hori hala, Nazio Batuek beto eskubidearen printzipioa gainditzeko ez duteno, errotondan buelta-bueltaka segituko dugu, alimaleko triskantzak gertatzen diren bitartean. Gutxi baitira euren historiaren ikasgaiak barneratzen dituzten herriak, eta Israel-ek antisemitismoaren drama pairatu duen arren, ez du ikusten edo ez du ikusi nahi anti-islamismoak basakeria-
ra daramala.

Zergatik gailentzen zaio, munduan oro har, legalitatea zilegitasunari?

Ez dakit, baina hori da gure drama. Hala ere, ezinbestekoak zaizkigun baloreen garraio ibili behar dugu, eta ezinbestekoak zaizkigun neurrian irabaziko dugu zilegitasuna. Legitimoa da gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, legitimoa da gizartea gaixo eta ezinduen kargu egitea... eta legeak zentzu horretan ez



AZKEN HITZA

Agintea

"Nire gazte denboretan gobernu autoritarioak zeuden agintean, eta autoritarismoaren aurrean errazagoa da bat egin eta asaldatzea. Egun, Sarkozy, Cameron edo Berlusconi bezalako agintariak ditugu, eta haserretzeko moduko mila motibo eman arren, anbizio gutxiko gobernadoreak baizik ez dira. Guk figura indartsuak genituen, identifikatzen biziki errazak, hil ala bizi borrokatu beharrekoak, baina oraingoak dinamikoagoak bihurtu nahi genituzkeen mazapanak dira, eta sinetsi, askoz zailagoa dela horiei aurre egitea".

doazela ikusten badugu, legalitatea zilegitasunaren gainetik jartzen badute, erresistentzia eta disidentziarako eskubide osoa daukagu. Legalitatearen aurka zilegitasuna aldarrikatzen duen borroka oro justua da, errealtate bat arriskutsu bihurtzen denean desobedientziarako tartea atzeman behar baita, irtenbiderik gabeko kaosean jausi gabe. Desobedientzia hori aski oparo eta ugaria bada izugarriko presio bidea da munduko edozein gobernuentzat, eta botereak amore eman dezake.

**Aski diskurtso ezkertiarra da zurea, baina egungo ezker-
ra ez al dago zentrotik inoiz baino hurbilago?**

Ez nuke esango. Rasmusenek gidatzen duen Europako alderdi sozialista niretzat oso baliosak diren baloreen ikurra da. Ez dut gehiago eskatzen. Ez dut uste iraultza bultzebike baten bezperetan gaudenik. Demokrazian bizi gara, poztekoa da, baina hala ere, demokraziak sozialki eta ingurumenaren arloan eman dezakeena guztiz zukutu beharra daukagu. Horregatik, hurrengo belaunaldiak pobrezia-
ren eta injustizia sozialaren aurkako borroka eta ingurumenaren aldeko guda eraman beharko dituzte. Borondate eta dinamismo anitz exijituko duten

batailak dira, baina aurrera egiteko, ez dago zertan hankaz gora bota dauzkagun instituzioak. Alderantziz, Europako instituzioek edo Nazio Batuek asko egin dezakete mundu hobea baten bidean, eta izatez baiko-
rra naizenez, egun batean denak danimarkarrak Danimarkan bezala bizitzea nahi nuke. Ekonomia sozial eta solidarioa duen mundua behar dugu, eta gauza asko oker badoaz ere, ez dezagun ahantz ziaboga interesgarriak ematen ari direla, eta urratzeko bide eta aukera ederrak geratzen zaizkigula. ■

Pozoitutako garapena

Hondakin elektronikoen zabortegi bihurtu da Ghanako Agbogbloshie auzunea. Hondatutako telebistak, ordenagailuak eta hozkailuak etengabe iristen dira. Debekatuta dago, berez, garapen bidean dauden herrialdeetara e-zaborra garraiatzea, baina bigarren eskuko ondasun bezala kamuflatu dute. Ghanara heltzen diren aparailu gehienak Europatik eramaten dituzte.

Testua eta argazkiak:
INAKI GURIDI

TIPULAK SALTZEN DIRA Agbogbloshieko merkatuan. Malitik zuzenean iristen dira kamioiak tipula gorriz goraino beteta. Atentzioa ematen du soilik tipulak saltzen dituen merkatu batek. Segituan, orde, beste zerbait egiten da begietara arraroago: saltzaileen eserlekuak. Normalena, agian, egurrezko aulkiren batean eserita egotea litzateke, baina Agbogbloshieko saltzaileak telebista eta ordenagailu pantailen gainean daude jarrita. Pantailen plastikozko kaxa da, goiko behera jarri, eta esertzeko erabiltzen dutena.

Auzunean apur bat ibiltzea nahikoa da konturatzeko, hondakin elektronikoen horiek auzotar askoren bizibidea direla. Nonahi ikus daitezke pilatuta telebista, bideo, ordenagailu edo hozkailu zatiak. Han eta hemen, gizon gazte taldeak ageri dira, pantaila gainetan eseri eta mailu eta zizelarekin apurtutako aparailuak oraindik gehiago txikitzen.

Aluminioa, burdina edota kobrea atera nahi dituzte hondatutako gailu horietatik. Saldu egiten dituzte gero. Atzeritik iritsitakoak dira elektrotresna hauek denak. Ghanako



Ghanako Agbogbloshie auzunea, hondakin elektronikoz bete.



Gobernuak Ingurumena Babesteko Agentzia du, eta John Pwamang da agentziako zuzendarietakobat: “Amerikatik eta Kanadatik ere bidaltzen dituzte, baina gertutasun geografikoagatik Europatik dator aparailuen %85a”.

1989an onartutako Basileako Konbentzioak debekatu egiten du e-zaborra bidaltzea garapen bidean dauden herrialdeetara. Txirrotutako herrialdeak zabortegi bihurtzea eragotzi nahi du 170 herrialdek berretsia duten itun horrek. Argi dago, ordea, askorentzat erraza dela konbentzio horren bahea pasatzea. “Bigarren eskuko ondasun bezala izendatuta iristen dira aparailu hauek denak. Hemengo portura iritsitakoan, ordea, hamaurretik hiru hondatuta daude, e-zaborra dira. Funtzionatzen duten askori, berriz, ez zaie bizi luzea geratzen”, dio Pwamangek.

Hondakin tona askori buruz ari gara. Mike Anane, Ghanako Ingurumen Kazetarien Ligako zuzendariak aspaldiko urteetan dihardu gaia ikertzen. Orain zazpi urte sumatu zuen lehenengo aldiz hondakin elektronikoz betetako kamioi bat Temako portutik Agboghoshiera bidean. Bere datuen arabera hilero 500 kontainer iristen dira portura hondakin elektronikoz beteta. Ghanako Gobernuaren txosten batek dio 2009an bakarrik bigarren eskuko 150.000 tona aparailu elektroniko heldu zirela herrialdera. Herena hondatuta zegoen.

Rotterdamgo portutik abiatzen dira Ghanara heltzen diren merkantzia gehienak. Baina ez dira Herbeheretako gailuak soilik bidaltzen. Britainia Handia, Alemania, Fran-

“Hondakin kimiko kaltegarriekin etengabeko kontaktuan daude. Beruna, merkurioa eta kadmioa bezalako osagai toxikoak dituzte manipulatzeko dituzten gailuek”

MIKE ANANE, KAZETARIA

tzia, Italia zein Espainia ere zabor elektronikoa esportatzen abilak dira. “Herrialde gutxi salbatzen dira”, dio Ananek.

Bigarren eskuko elektronika

Ghanan, ohikoena, bigarren eskuko aparailu elektronikoak izatea da. Etxerik gehienetan Europan atzera utzitako hozkailu eta telebistak dituzte. Akkra hiriburuan

hain ugari diren Internet guneetan, gurean ia aspaldi desagertutako pantaila sakoneko ordenagailuak dira nagusi. Edozein bazterretan saltzen diren sakelako telefonoak, berriz, aurrez erabilitakoak dira sarri.

Atzerriko enpresak dira, askotan, bigarren eskuko ondasunak inportatu eta herrialdean saltzen dituztenak. Ghana bertako enpresariak ere joaten dira atzerrira material bila. Erosi egiten dituzte inportatzeko gailuak, edo batzuetan emandakoak jasotzen dituzte, gero saltzeko. Ghanako Gobernuak berak bultzatzen du bigarren eskuko ondasunak inportatzea. Gai hauek ez dute aduana tasarik ordaindu beharrik. 2003ko lege batek argi dio leize digitalarekin amaitzeko eta herritarrak teknologia berrietan alfabetatzeko modu egokia dela erabilitako materiala inportatzea, gutxi baitira aparailu berriak erosteko bitartekoak dituztenak.

Frank Braimah, Ghanako Teknologia Institutuko operazio zuzendariak ez du gustuko bigarren eskuko osagai elektronikoak inportatzea: “Iruditzen zait herrialde garatuek euren buruko mina ematen digutela dohaintzan. Ez dakite aparailu elektronikoekin zer egin hondatutakoan”. Kanpotik etorri eta

Zergatik Ghana?

Toki erakargarria da Ghana e-zaborra pilatzeko. Aspal-diko urteetan egoera politiko egonkorra du eta horrek ahalbidetu du Europa zein Amerikako herrialde askorekin hartu-eman ekonomiko ugari izatea.

Akkra hiriburutik oso gertu dagoen Temako portua da merkantziak garraiatzeko gune nagusia. Bizia da bertako mugimendua, eta horrek errazago egiten du hondatutako aparailu elektronikoaren garraioa. John Pwamangek hala ikusten du, behintzat: "Errazagoa da ontzien joan-etorria etengabea denean, mugimendu gutxi dagoen portuan baino. Legezko merkantziaren alboan errazago sartzen da legez kanpokoak". Bigarren eskuko gailu elektriko eta elektronikoaren kontsumitzaile amorratua da, gainera, Ghana. Herritarren erdia pobre-

zia langaren azpian bizi bada ere, beste erdiak badu bigarren eskuko telebista edo hozkailua erosteko adina baliabide.

E-zaborra, dena den, ez da soilik Ghanako arazoa. Antzeko helmuga ugari aurkitu dituzte hondakin elektronikoak euren herrialdeetatik atera nahi dituztenek. Afrika mendebaldetik irten gabe, Nigerian antzekoa da arazoa.

Basel Action Network taldeak –Basileako Konbentzioa betetzearen alde lanean ari denak– eta Greenpeace orain urte batzuk egindako lehen peskizetan, Txina eta Indian atzeman zituzten hondakin elektronikoaren zabortegeak. Gerora Afrikako eta Latinoamerikako dozenaka herrialdetan aurkitu dituzte antzeko egoerak.

funtzionatzen duten tresnak segituan banatzen dira Ghanan dauden ehunka salmenta postuetan. Oso sare konplexua dago herrialde guztian hedatuta.

Birziklatzeko azpiegitura egokirik ez dago, ordea, eta konpondu ezin diren tresnei destino bakarra geratzen zaie: Agbogbloshie.

Suarekin jolasean

Gizonak mailuarekin txatarra jo eta jo ari direla, plastiko erre usaina hartzen da. Ke beltzak utzitako arrastoari jarraituz, auzunetik nahiko gertu dagoen zabortegeira hel gaitzke. Eremu zabala da. Odaw ibaiaren bazterrean dago. Kiratsa dario 200 bat metro aurrerago Gineako golkoarekin bat egiten duen errekar. Zikinkeria bazter guztietan dago pilatuta. Zikinkeria artean, telefono mugikor zatiak, apurtutako kalkulagailuren bat, telebista izandako zerbaiten hondarra eta ordenagailu teklatu txikitak. Mutiko talde bat sua eginez dabil. Zaharrenak 20 bat urte izango ditu, baina dozena bat urte bueltakoak dira gehienak. Kable sortak erretzen ari dira, aurrez auzoko beste behargin batzuek aparai-

luei kendutako kableak. Suari indarra emateko, plastiko zatiak jartzen dizkiete inguruan edo hozkailuei kendutako poliuretanoa. Kobrea da atera nahi dutena.

Mohamed da bertan dabilenetako bat, 10 urteko mutikoa. Inguru honetan beste asko bezala, Ghana iparraldetik etorritako errefuxiatua da, tribuen arteko liskarretatik ihesi. Dagbani hizkuntza hitz egiten dute, hiriburuan beste inork gutxik menperatzen duena.

Mohamed goizeko seietatik arratsaldeko seietara jarduten da zabortegean. Egunean bizpahiru cedi ateratzen ditu, euro eta erdi. Gurasoak iparraldean ditu, eta hirian Isaac anaiaren babesean bizi da. 15 urte ditu anaiak. Bietako inor ez da eskolara joaten. Zabortegean dabiltzanaren osasuna arrisku bizian dago. Mike Ananek sarritan egin die bisita. "Hondakin kimiko kaltegarriekin etengabeko kontaktuan daude zabortegean dabiltzanak. Beruna, merkurioa eta kadmioa bezalako osagai toxikoak dituzte manipulatzeko dituzten gailuek". Berunak kalte handia eragiten du haurren garapenean, batez ere burmuinaren garapenean. Nerbio sistemari eta birsortze aparailua-





ri ere zuzenean eragiten die. “Gainera, sua erabiltzen dute plastikoa erre eta kableek barruan duten kobrea lortzeko. Erreketa horretan dioxina eta ke toxiko ugari askatzen dira, eta bertan dabiltzanek zuzenean arnasten dituzte”, dio Ananek asaldatuta.

Zabortegian lanean ari den Etsi-ri galdetu diogu ea badakien zein arrisku dituen bere osasunarentzat egiten ari den lanak. “Keak hartzen duen bidetik aldendu behar duzu, zikinkeriarik ez arnasteko. Horrekin kontu izanez gero nahikoa da”, dio konbentzituta. Bakarren batzuek izan omen dituzte osasun arazoak, baina berak ez dirudi kezkatuegi. Argi dago kearen norabidea zaintzea ez dela nahikoa. Mike Ananek arazo asko aurkitu ditu ume hauen artean. “Ikusi ditut umeak eztula egin eta odola botatzen. Arnasketa arazo handiak dituzte beraietako askok”. Greenpeace talde ekologistak Agbogloboshien egindako ikerketa batek erakutsi du lurzoruan dagoen kutsadura maila oso altua dela. Beruna, merkurioa eta kadmioa baimendutako mailetatik oso gora atzeman dituzte. Aparailu elektronikoetatik datozen elementuak dira denak.

Zabortegian jarduten dutenekin kezkatuta dago Mike Anane, baina behin eta berriz azpimarratu nahi du kutsadura honek ez diela soilik eurei eragiten. “Euria egiten duenean, metal horiek filtratu egiten dira. Errekara doaz denak, eta itsasoa bertan dago. Itsaso horretako arraina jaten dugu ghanatarrok, eta metal astun horiek gure organismoan amaitzen dute”.

Kontrolik ez

Egoerari aurre egiteko kontrol neurriak zorroztu behar direla gauza argia da. Herrialde

Hondatutako aparailuak apurtzeko eta horietatik metalak ateratzeko oso teknika oinarritzkoak erabiltzen dituzte. “Mailua eta zizela dira askotan erabiltzen dituzten tresna bakarrak, eta ingurura partikula kutsagarri asko askatzen dituzte. Teknika berriak erakutsi behar dizkiegu ingurumena eta osasuna gutxiago kaltetzeko”, dio John Pwamangek.

dearen barruan, eta kanpoan, bietan dago zeregina. Ingurumena Babesteko Agentziak igorria dio eskaria Ghanako parlamentuari bigarren eskuko ondasunen inportazioa arau dezan. John Pwamang agentziako arduradunaren arabera, “legerik ez dago inportazio horiek arautzen dituenik, eta horrek iruzurre-rako bidea zabalik uzten du. Herrialde barruan bertan hasi behar dugu araudia zorrozten hondatuta datozen aparailuei atea ixteko”. Basileako Konbentzioa betearaztea da, Mike Ananeren ustez, arazoari aurre egiteko lehenengo urratsa. Argi du erantzukizun kriminalak daudela honen guztiaren atzean: “Interpolek jarraipen zehatza egin behar luke, jakiteko nork bidaltzen dituen hondakin elektroniko hauek. E-zaorraren ondorioz jende asko gaixotu da. Arduradunak atxilotu egin behar dira”.


Dagoeneko atxiloteta batzuk egin dira Britainia Handian eta Herbehereetan. Bertako agintariak Ghanako Gobernuarekin elkarlanean ari direla dio Pwamangek: “Eskatzen digute atzematen ditugun hondatutako merkantzien informazioa. Esaten digute garraiolariari buruzko datuak iristen bazaizkie, hurrengoetan errazago atzeman ditzaketela e-zaorra dakarten bidalketak”. Pwamangek, hala ere, ulertzen du Rotterdam bezalako portu handietan ezin dela kontainer oro ikuskatu. Anane ez dator horrekin bat. Bere iritziz hondakin elektronikoak esportatzen dituzten herrialdeak dira kontrol zorrotzagoak jarri behar lituzketenak: “Garapen bidean dagoen herrialde bati ezin diozu eskatu portuak agentz betetzeko. Ghanako Gobernuak beste lehentasun batzuk ditu bere baliabideak gastatzeko”. Europako agintariek ez dute nahikoa egiten, bere ustez.

Kontrolarekin batera, heziketa ezinbesteko jotzen dute adituek arazoari aurre egiteko. Ez soilik hondakinak manipulatzeko dituzten artean; herritar guztiengana hedatu behar da heziketa. Eta bide batez, osagai elektronikoak egiten dituzten enpresetara ere hedatu behar litzateke ardura. Frank Braimah-k dio konpainia horiek bilketa sistemak jarri behar lituzketela, “kontsumitzaileei hondatutako aparailuak entregatzeagatik konpentsazioren bat emanez. Ananeren ustez, neurririk gabeko etekin gosea dute enpresa hauek: “Programatutako zaharkitzapena dago guztiaren atzean. Iraungitze data jartzen diote aparailuari, denbora gutxiren buruan funtzionatzeari utz diezaion eta kontsumitzaileak laster berria eros dezan”.

argia.com Ghanan ikusi eta entzundakoarekin bideoa osatu dugu gure webgunean.

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



TTAKUN (H)ERRENKA

Hilik

DANI BLANCO



Ixne Apaolaza



Padrón



Sarasola

Internetez ikus ditza-
kegunetik, gustuko
telesail bat topatzen
dudanetan bezain
besteko betekada izan
nuen Iñaki Berrioren zutabe-
kin Beñat, larunbat bakartiaren
orduak bete zizkidatenak. Iru-
diaren inguruko zure gogoetak
nahigabe burmuineko eremu
eskuragarriren batean izango
nituen eta heriotzari buruzko
zutabe batean geratu naiz, eki-
dinezina zaidan lotura batean, iruditik herio-
tzara. Zutabea hiltzeko momentuaz ari zen,
unea aukeratzeaz, hiltzen zenerako prestake-
tez. Liz Taylorrez oroitu nintzen, bere herio-
tza egunerako hainbat gauza eskaturik zuena,
urtetan hitzorduetara iritsi zen eran, bere hile-
tara berandu iristea kasu, “ez da horrelako
izarrik geratzen”, eta larunbat alfer hartan, *De
repente el último verano* ikustera jarri nintzen,
“bere pelikulak geratzen zaizkigu eta hori
guztia”.

Pantailan bizirik agertzen zena ordea, hilik
dago, eta ikusten ari nintzena hilik dago gai-
nera irudia jaso zen unetik; zenbat aldiz hil
ote da Liz Taylor. Munduko argazki guztiak,
izarrenak eta gureak, heriotza banaren kons-
tatazioa balira bezala zen, gehiago izango ez
denaren erregistroa (eta Xabier Montoiarena
etorkizunerako apustu bat, iraunkortasunaren
alde presentea kuantitatiboki apur bat sakrifi-
katuz; noizbait argazkia bilatu
duenak presentek eman diezaio-
keen printza txikiena harrapatu
nahi du, edo editoreari, esaneko
izan eta eskatzen dizkioten argazki
guztiak atereaz, bere liburua argi-
taratzeak suposatu duen diru
xahutzea nolabait konpentsatu).
Lizek gainera, ez dakit zein unetik
aurrera, bere aurreko irudia bor-
tizki hiltzen zuen, konstelazioz
okertu den izar bat bezala, garaiz
kanpo, Espainian Sara Montiele-
kin gertatzen den eran, edo gerta-
tu zen bezala Donostian, azken
aldiz, izar agertzeko modu baten

heriotza konfirmatuz,
mamutzat agertu zen Bette
Davis harekin (orain akto-
reak, pertsonaia famatuak,
“ni pertsona supernormala
naiz”, beren familiaz oroiz-
tzen dira saritzen dituzte-
nean, mukiak irentsi behar
izateko intentsitatez negar
zotinka, eta jogurt desnata-
tuak eskatzen dituzte hote-

letan. Ez dute gure gainetik egon nahi, ezta
iruditzat ere; dagoeneko ez dira tentazio arris-
kutsu, kontsumitzailearen proiektzio baino,
ume katolikoen sentiberatasun/zuzentasuna
arriskuan jarriko ez dituen zerbaite oso asper-
garria azkenik).

Ez dakit zerk eraman nauen, irudiek edo
heriotzak, gaurko hirietan pentsatzera, bakoiz-
tza Calatrava baten atzetik irudi izateko turis-
ten kameretan, hiriak museo, begiratuak izate-
ko, izar. Eta museoan hilik obra dago, pasiboa
bera da, ez hartzailea, obrak duen bizitza,
begiratzen duenarena da (orain batzuetan sen-
tsazioa sartzen zait obra aurrez adosten dela
ikuslearekin egiten diren kontu interaktibo
guztien bidez kriterioa ostu eta kontsumituko
dutena ateratzen baitiote, eta gero, interpreta-
zioa inposatzen behin obra kalean dela, auto-
reak interaktuatzen jarraitu nahi duelako, har-
tzailea bakean utzi gabe). Jolas parke, hiriak
duen bizitza bakarra ikuslearena litzateke,
turistarena, gaur egun eskubide guztien muga

markatuz, (greba deitu orduko
hasten gara, ez bizilagunek, zer
esango dute turistek), eta gero eta
ohikoagoa da entzutea Sevillari
bultzada perretxiko erraldoi
batzuk emango diotela, seguridad
ciudadana, janzkera inposaketak
eta asmatu ditugun kultura guz-
tiak, gastronomikoa batez ere;
Bilbo adibidez hiri guztien inbidia
bihurtzen ari da, gero eta museo-
ago, ez dakit nongo ikusleentzat.

Lokartzeko eskua luzatu eta
katuaren arnasa bizia bilatu nuen,
argazkietatik libre, museoaren
banbalinetan. ■

Pantailan bizirik agertzen zena ordea,
hilik dago, eta ikusten ari nintzena
hilik dago gainera irudia jaso zen
unetik; zenbat aldiz hil ote da

Liz Taylor

Jakes Bortairu

BATERA PLATAFORMAKO KIDEA

Kantonamendu hauteskundeak

A

zken kantonamenduetako hauteskundeak iragan dira eta duela 212 urte frantses lurraldearen antolaketa osoa irauli zuten kantonamendu hautes barrutiak azken aldikotz baliatuak izan dira. Alabaina, pasa den abenduan Frantziako Legebiltzarrak onartu Lurralde Elkargoen erreformak kontseilari nagusiaren figura eta hautes barrutiak desagertarazi ditu.

Alta instituzio zahar horien desagertpen programatuak ez ditu hautesleak mobilizatu. Frantzian eta Ipar Euskal Herriko hirietan marka guztiak hautsi ditu abstentzioak. Mendealdeko hainbat demokraziatan gertatzen den bezala joera horrek politikaren krisia sakona islatzen du. Eguneroko aktualitateak hauteskunde bitartez deus gutti aldatzen ahal delako ustea indartzen du: Europa osoan zehar, hautaturiko agintariak baino, finantza merkatuek dute bakar batzuen interesen aldeko politika sozio-ekonomikoak inposatzen. Bitartean, mehatxuen beldur eta etsipen artean, noraeza nagusitzen delarik, eskuin muturraren aldeko bozka, klase politikoa hobekien inarrostean duen aukera bezala ikusten dute askok.

Departamenduak sortu zirenetik Biarnoa eta Ipar Euskal Herria barne hartzen dituen Pirinio Atlantiarreko departamenduaren gehiengoa lehen



DANI BLANCO

aldikotz lortu du ezkerrek (28-24), bi lurraldeen argazkiak arras desberdinak badira ere. Biarnoan ezkerre/ eskuina, 21/10 delarik, Iparraldean 7/13 dugu (abertzale bat ahanzi gabe). Eskuinaren blokean euskal demokraziaren tendentzia historikoa ahulduz doa (7), UMPren fagoretan (6). EH Bai koalizioak berriz, aurkeztzen zen 9 kantonamenduetan bozen %12 bildu du batez beste. Horrela hirugarren indar politikoa da eskuin-zentrista eta sozialisten gibeletik. Ezkerreko mezu abertzaleak bere lekua izan du kanpainen zehar eta eztabaida politikoan eramaten dituen arazoak bazter ezinak bilakatu dira, bai eta bigarren itzulian ere. Koalizioaren erreferentzialtasuna ukatzina da. Halere, barnealdean egiazko alternatiba gisa agertzen bada (%19,5), kostaldeko hirietan abstentzioak pairatu du eta franko ahul gelditu da (%5,2). Geroari begira aktiboak ez ditu eskas koalizioak. Azterketa kritikoak eta eztabaida estrategikoak ere ez.

Kantonamendu hauteskunde biharamunean bertan, abertzaleak joko zkanpo uzten dituen 2012ko lehendakartzako eztabaidan burubelarri murgildu dira alderdi nagusiak. Sozialistek (PS) irabaziz gero, Lurralde Elkargoen erreforma deuseztatuko dutela hitz eman dute. Nork daki ez ote diren oraindik kantonamenduetako hauteskundeak izanen 2014an? ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Huts egin. Beharrezkoa ote nintzen frogatu nahi nuen. Txanda pasaka. Adi inguruari, lehen auzotik demandaka ari zitzaizkidan lehen astetik. Telefonoak su, mezuak irakiten dauzkat. Sumatu, sumatzen nuen lehendik ere nire artikuluxken eragina, hurbileneko munduan arrakasta izugarria zutenak. Hala ere, baiez-tatu nahi nuen susmoa. Uste baino beharrezkoagoak dituzte lehen auzokoek. Eta ezin nuen eskaeren presioa jasan. Ezin ditut umezurtz utzi nire buruari esanez, berriro honi ekitea erabaki dut. Denboraldiritxoak igaro dut lehiaketetatik urrunduta kirolari kolpatuaren

Ezin nuen

antzeria, mundua seko kieto geratu izan balitz bezala, nire buruarenaz hara deus ez balego bezala. Egunkariak irakurri gabe begiratu, iratiak aditu gabe entzun, telebistak martxan burua zultu gabe. Gai bakarrean aritu izan natzaizue, bizitzen, bizitze hutsa aski izan bailitzan. Atzartzean, kanbiamendurik gabe aurkitu ditut munduak hedabideak gora eta behera. Berean jarraitzen dute zoriontsu, munduek beharko litzuketen iraultzak mamu. Lasaitu zaitez irakurle, auzo urrun horiek gu ezagutu gabe jarraitzen dute eta gu berekotzeko ahaleginetan tortura dute lanabes, arrotz dutena desagerrarazteko estrategia hilkor zaharrean, hain berea duten horretan. ■

Oier Araolaza

DANTZARIA

Kutxek euskal kulturaren alde egindakoa

Medikura noa” esan, bulegotik irten, kotxea hartu eta Bilbotik Iruñera, dantzarien elkarteko bilerara bata. Lantokiko telefonoa eta agendarekin kultur aste osoa antolatzen bestea. Aurrezki kutxan bata, eta bankuan bestea, eta ordu erdiko telefono elkarriketa bien artean, hurrengo astean egingo duten jaialdiko xehetasunak lotzen.

Ez dira ez bat, ez bi, dantza taldearen emanaldiak, elkarteko gorabeherak, udalekin harremanak, festen programaketak, hitzaldi, erakusketa eta beste mila kultur jarduera beraien lantokietatik antolatu izan dituztenak. Tailerre-tan batzuk, bulegoetan gehienak, eta aurrezki kutxa eta bankuetan aritutakoak mordoa. Milaka lan-ordua izango dira lantegiko zeregi-nei ebatsitakoak, eta ikastola, auzoko festa, musika, dantza, antzerki eta bertso jaialdien antolaketa lanetara desbideratutakoak.

Orain, kafe eta komunerako minutuak neurtuta ditugu, eta lan-segundu bakoitzaren erabilera zehatza, errendimendu eta kostua zehaztuta daude. Lankideak itxura batean behintzat, txintxo-txintxo jarduten dira beraien zereginetan edo Facebook-en “atsegin dut” jartzen, eta “militantea” lotsatu egiten da lantokira dei-



DANI BLANCO

tzen dutenean. Telefonista ere pipertuta antzematen du inprentatik goiz berean hiru aldiz deitu dutelako: “Ez, ez, ni ez naiz dantza taldeko idazkaria, eta niri bost axola udaleko logoa falta bazaizue!”.

Kultura ekitaldiak antolatzeko lehen baino bolondres eta disposizio gutxiago dagoela aipatzen denean, ezin ahaztu lan-munduan azken urteotan izan diren aldaketak. Poliki-poliki joan dira japonizatzen lantokiak eta beraz, ezin diogu ez aurrezki kutxen fusioari, ez eta Fukushima-ri leporatu hain emankorra gertatu zaigun jarioa itxi izana. Bakar batzuek jarraitzen dute beraien lan-orduak kultura eta festetara desbideratzen, baina badakigu kudeatzaile berri bakoitzak gehiago zorrozten dituela lan-orduen kontrol mekanismoak eta hauenak ere bide motza izan-go duela.

Beraz, besteak beste, eraikuntza enpresek, aseguratzaileek, mota guztietarako tailerre-ekin, hornitzaileek eta banaketa enpresek, denda handi eta txikiak, aurrezki kutxek eta bankuek euskal kulturaren alde egindakoa aitortu eta eskertzeko ordua iritsi da. Mila esker, zuen ekarpenik gabe ezinezkoa izan-go zen. Ea orain nola moldatzen garen. ■

« Poliki-poliki joan dira japonizatzen lantokiak eta beraz, ezin diogu ez aurrezki kutxen fusioari, ez eta Fukushima-ri leporatu hain emankorra gertatu zaigun jarioa itxi izana »

TXANDAN

Andoni Mujika



Bat: edozein ekimen hezur-mamitzeko orduan, pertsonak, ideiak eta baliabideak –hau bigarren maila batean– behar dira. Beste bat: premisa jakin batetik abiatuko naiz –eta ez da berria–, ekimen interesgarrienak pertsonaren baitako aldaketan oinarritzen dira. Aurrekoa, beste modu batera esanda, gizateriaren etorkizun hobea lortzen joateko esanguratsuak izango diren prozesuek pertsonaren dimentsioa izango dute ardatz. Edo ez dira izango. Zientzia: nik sinesten diet zenbait biologo eta psikologori. Barren-barrenean diote gizakumea bi gauza dela –asko konpilaturik–: genetika eta zaintza

Oinarria

–edo zaintza-eza–. Hau da: giza espezieak dituen aurre-baldintza genetiko guztiak dakartzagula pertsonen erresuman jaustearren, bakarrik horregatik. Aurre-baldintza edo potentzialitateok: fisiko, morfologiko, afektibo, esploratzaile, sexual, haserrearekin lotutakoak, beldurrarekin... egoki edo desegoki gara daitezke, zaindu edo zaindu ez, horren arabera. Irudi bat konparaziorako: landare erne berria da pertsona umetan. Landare horri behar dituenak eskaini ezker, erne-aro eta lehen hazkuntza-aroan batez ere, berez dakartzan potentzialak garatu egingo ditu. Zaindu ezik, iharra eta mugatua izango da. Eta onurak edo fakturak izango ditu. ■

ZIRTAK

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

Argiak itzali zuena

Estibalizeko monasteriotik fraile bat desagertu zela jakinarazi zidatelarik, egunkarian susmoa baiez-tatu baino ez nuen egin: Joxe zen, abiturik gabe, jertse huts batekin ibili bat egitera joan, eta gauak eta izotzak harrapatu zutena... Eta Estibaliztik Atau-nera joan zitzaidan gogo: egun batez, ama-alabak Ataungo Aia auzune urrunetik Ordiziako feriara abiatu ziren, astoan barazki eta arrautza batzuk harturik; halako batean, eliza handi bat eta bide bazterrean etxeak ikusirik, amak ttikiari esan zion: “Auzo hau San Gregorio dun, eta hurrena San Martin zagon”; alaba are gehiago harritu zen Lazkaon, hango jauregi eta elizekin, eta laster oihuka-tu zuen: “Ama, itsasoa, itsasoa!”; baina itsasoa artean urrun egon, eta Oria ibai bulartsua zela adierazi zion amak: “Tira, ailegatu gaitun Billa-prankara, oraintxe ikusiko dinagu plaza nagusia”; eta alaba jakingose-tuak amari galdegin ziolarik ea herri gehia-gu ote zegoen, hark erantzun: “Bai, Billa-pranka eta gero Tolosa zagon, eta Donostia gero, uri haundia. Eta gero, gero itsasoa...”; itzuleran argituko zion haurñoak ere, Ordiziako azoka-tik eramaten zirela, saski ttiki batean.

Mundua itsasoa amaitzen zen tenore ez horren urrun hartan sortu zen Joxe, hain zuzen ere San Gregorio auzuneko Ergonen, Sarriartegarakoa etxean. Haurtzaroan, gaueko lanetan jardun bitartean entzundako ipuinak *Kontu zaarrak* liburuan jaso zituen, eta azalean nekazari baten argazkia ageri baitzen, halakoxea imajinatu nuen gerora Estibalizen hartu ninduen gizon eskuzabalak: “Baserritarra? Horixe naizela. Hemengo inguruak-eta garbitzen ditut. Oilategia ere badut, mila oilorekin...”. Baina bestelakoa zen bera: Maddi Ariztiaren *Amatoren uzta* liburuan ipuinak kontatzeaz aduratzaren zen gizon bat ageri da, etxerik etxe ibiltzen zena eta ‘ixtorio erraile’ esaten ziotena. Bada Joxe horixe iru-



DANI BLANCO

Mundua itsasoa amaitzen zen
tenore ez horren urrun hartan
sortu zen Joxe, hain zuzen ere
San Gregorio auzuneko Ergonen,
Sarriartegarakoa etxean

ditu izan zait beti, entzule gormanta eta erraile aparta, apalaz gainera. Eta Azkue edo Barandiaranen—hura ere San Gregorio-koa, Sara etxekoa— bildumen alboan, kontu handiz gorde izan ditut bai Ariztiaren bai Arratibelen liburu preziatuak (azken honen edizio berriua Miel Anjel Elustondok atondu zuen, Antton Olariagaren ilustrazioekin batera).

Beharbada gerra izan daiteke gaua-ren sinonimoetako bat, eta ipuin giro hura gerrak eten zuen Joxeren uste-tan. Are gehiago, monasterioko naga-sia kartzelaratu zutenean hasi zen bera kontu haiek idazten, Joxemari San Sebastian *Latxagak* akuilatua. “Nik ez neukan iturri bat, tantaka-tantaka, ura bezala ipuinak ematen zituen; ez, nik putzu ttiki bat neukan, eta hura hustu zen eta kitto”. Alabaina, hain zuzen ere Elustondo izan zen, gerora, putzu haren azken tanta eztiak bildu, eta argitaratzeaz arduratu zena (*Sorginen urrezko maindi-rea, Izugarriak...*; bestalde, *Urrezko giltza* liburuko CD batean, Joxeren ahotsean entzun dezakegu *Txomin Ipurdi*).

Gerrak itzali zuen Joxeren mundu hura. Eta argiak. Udazkeneko, Ataune-ra itzuli ohi zen egun batzuk pasatzera. “San Gregoriotik etxera oinez joaten naiz, ilundu eta gero, eta nire artean pentsatzen dut: hemengo hau sorgin tokia da, beste hau...”.

Baina Joxe harritu egiten zen, gauez, haurrak etxetik zein erraz irteten ziren ikusirik. “Gaur egun denean dago argia, baina orduan...”. Adinean aurrera, Joxe gauean desagertu bide zen, baina ilun-petan ez zen bakarrik egongo: *Txomin Ipurdi*, *Mari Xor*, *Lapurren Leizeko bi anaiak...* izango zituen lagun. Eta harrigar-riro bizirik topatu bazuten ere, eta gerora hil, beharbada gau hartan geratu zen beti-ko, berak putzutzat zuen ipuinen itsasoa. Alabaina, gertatu zen, argitasun gehiegizko tenore honetan, apenas inor ohartu zela galeraren handiaz. ■



irudia:
Antton Olariaga

BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

Beste akta

Auzitegi Goreneko 61. aretoa. 2011-11-03. 21:01.

I

– Musean txapeldunak
Carlos eta Fermin!
– Garaia da bilera
hau amaitu dadin;
plantak egiten luze
jardun dugu. – En fin,
hau ere ebatziko
dugu arin-arin:
azkeneko aktari,
“copiaypega” egin!

II

– Baina hau lehengoaren
berdina ote da?
– Zertara dator orain
halako galdera?
– Behingoz ausartu dira
ETA gaitzestera;
zerrenda garbia da
goitik eta behera...
Bete behar zutena
ez zen horixe ba!?

III

– Antiterroristetan
milioika euro;
bizkartzain pribatuak
hamar mila edo;
albistegi denetan
bizpahiru numero...
Zer lirateke Raxoi
eta Zapatero
ETA amaitu dela
onartu ezkeror?

IV

– Baina diote ETA
gaitzesten dutela!
– Badakizu betiko
berberak direla...
– Ez al zen justizia
gure erregela?
– Araua da Espainia
bat bakarra dela!
– Ez ahaztu inoiz Franco
ohean hil zela.

V

– Tira, bozka dezagun,
altxatu eskuak...
Gehiengo lortu du
aurkako juzkuak.
– Barkatuko al digu
sekula patuak...?
– Baimen eskean betoz
luzaro saguak;
justizia bat baino
ez dauka katuak.

VI

– Posible izango da
erabakitzea
eta gero iritzi
denak isiltzea?
– Aski da albistetan
amu bat jartzea
eta hegazkin batzuk
urrun bidaltzea...
Horixe da herria
“alibiatzea”.

DOINUA: “Xagutxo batzuekin”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Zinema

Eraso politikoak istorio deserosoei

Gai politikoek gertu izan ohi dute beti polemika, baita zineman ere. Ama Lur-etik hasi eta Euskal pilota-raino, Euskal Herria eta bereziki euskal gatazka mintzagai izan duten hemengo filmek zentsura, boikota, eztabaida eta iskanbila izan dituzte bidelagun.

MIKEL GARCIA



“DENA ESAN DEZAKE ZINEMAK, osotasun handiena du artistikoki eta komunikazio modu onena da. Harrapatu egiten zaitu guztiz eta sentimenduak aztoratzen dizkizu. Eta horrexegatik hartu zuten hain gaizki frankistek *Ama Lur* filma izatea, eta ez liburu bat adibidez. Zentsura, zailtasun eta oztopo guztiei aurre egin ostean, pelikula Donostiako Astoria zinema-aretoan estreinatu genuenean eta jendearen erantzun aparteko hura ikusi nuenean, ‘Fernando, irabazi dugu’, esan nion”. Nestor Basterretxeak dio hori, Fernando Larruquertekin batera *Ama Lur* (1968) pelikularen egileak. *Zeluloidezko begiradak*. Euskal Herriko 13 zuzendarirekin *bizketan* (Elkar) liburuan zinemarekin lotutako gai ugariz solastatu dira hainbat zuzendari, baina beraien ibilbidean kontu bat errepikatzen dela ohartu gara: filmen batean politika ukitu dute-nero, polemika piztu da inguruan.

Ezker-eskuin eta goitik behera: *Ama Lur*, *Ke arteko egunak*, *Burgosko prozesua*, *Segoviako ihesa*, *Mikelen heriotza*, *Días contados*, *Yoyes* eta *Euskal pilota*. *Larrua harriaren kontra*.

Euskal Herriko zinemagintza modernoaren abiapuntu izan zen *Ama Lur*, eta Espainiako diktaduraren aurkako aldarri bihurtzea zuen helburu. Noski, diktadura betean, ez zen erraza izan. Errodatu bitartean, NO-DOrako ari zirela esan behar izan zuten behin edo behin, agintariren bat gerturatzen zenean. Bobina bat egiten zuten bakoitzean (12 minutu inguru) zentsurari deitzera behartzen zituzten, eta zinema-areto txiki batean egiten zuten hitzordua. Hala azaldu du Basterretxeak liburuan: “Aretoan sartzen ginen eta aurrealdean jarri. Orduan, beraiek argiak itzali eta sartu egiten ziren, hiruzpalau, ilunpetan. Zinta ikusi, txutxu-mutxu batzuk entzuten genituen, aretotik ateratzen ziren eta argiak pizten genituen. Ez genizkien aurpegiak ikusten, baina handik astebetara Espainiako Informazio eta Turismo Sailera joan behar

izaten nuen Madrila, eta Fraga Iribarneren koinatu zenak, Carlos Robles Piquer-ek, sekulako errieta egiten zidan, hau kentzeko eta hura jartzeko”.

Zentsurak jan zituen, esaterako, Gernika-ko arbola elurtua, udaberrian ateratako arbola berarekin ordezkatu behar izan zutena, “Espainiaren barnean zoriontsu zen herrialdearen itxura agertzeko eta ez hilzorian zegoen herriarena”, edota Picassoren *Guernica* koadroa. “Espainia” hitza sartu behar izan zuten off ahotsaren hainbat pasartetan; eta Pio Barojak “espainiar eleberria” berritu zuela jartzeko agindu zieten, besteak beste. Obra bahituko zieten beldur ere izan ziren, baina azkenean ez zen hala gertatu eta arrakastatsu estreinatu ahal izan zuten Donostian. Are gehiago, Fraga bera zapuztuta ibili omen zen, *Ama Lur*-ek izan zuen harrera ona ikusita.

Urte batzuk geroago, Antxon Ezeiza zinegile donostiarrak 80ko hamarkada hasieran gidaturiko *Ikuska* dokumental sailak, Euskal Herriko errealtate sozialei heltzen zienak, izan zuen arazorik. Lehenengo dokumentalak *Erreferenduma* (1979) zuen izena, eta finantzariak ez zuten onartu, politika jorrazten zuelako. “Han joan ziren politikariak kronometroarekin, alderdi batzuetakoak eta bestetakoak, segundo gehien zeinek hartzen zituen zehatz-mehatz neurtzera. Ez zen proiektuan sartu, baina zinema-aretoetan eman genezakeela esan ziguten, hori bai, baldin eta aurretik jartzen bagenuen ‘kontuz, eduki politikoak ditu’. Nola ez ditu izango bada, *Erreferenduma* izenburuarekin?”, dio Ezeizak. Donostiarraren *Ke arteko egunak* (1989) lana ere jomuga izan zuten hedabide espainiarrek, jarrera abertzale muturrekoa egotzi baitzioten, nahiz eta zuzendariak sarri errepikatu filmak ez duela ideologia konkreturik eta euskal gatazkak eragindako sufrimendua islatu nahi duela.

Mozioa Lazkao Txikiren aurka

Marrakzi bizidunak ere izan daitezke polemika –surrealista– iturri. Juanba Berasategik zuzenduriko *Lazkao Txiki* (1998-1999) bertsolariaren bizitzari buruzko telesaila famatu egin zen euskal etxeetan. Bada, zer eta Eusko Legebiltzarrean bi mozio aurkeztu zituzten PSOEk eta PPK, telesailak Espainiako sinboloak, armada eta Guardia Zibila barregarri uzten zituela argudiatuta. *Lazkao Txiki* bertan behera uzteko eskatu zuten, eta atal bat proiektatu zen Legebiltzarrean. Gertakaria atseginez gogoratzen du Berasategik, azkenean mozioa kendu zutelako eta lazkaotarraren istorioei publizitate handia eman zielako.

Espainiarrek ez, zenbait abertzale ezkertiarrek kritikatu zuten Koldo Izagirreraren *Offeko maitasuna* (1992). Hiru pertsonen arteko maitasun istorioa du ardatz filmak, preso dagoenaren neska-lagunak harreman berria hasiko baitu hirugarren lagun batekin. Presoaren adiskideek ez dute onartuko harreman hori, eta lagunak intolerante irudikatu izana leporatu zion hainbatek pasaitarrari.

Del Bosch jeneralak ez zuen nahi Burgosko prozesuaren pelikularik

Imanol Uribe zuzendariak behin baino gehiagotan jorratu du euskal gatazka pantaila handian. Oztopo gehien *Burgosko prozesua* (1979) dokumentalarekin aurkitu zituen. Donostiako Zinemaldian estreinatzekoa zen, baina ez zutela proiektatzen utziko zabaldu zen komunikabideetan, eta filmaren kopia ezkutatu egin behar izan zuen. Uribek liburuan azaldu duenez, Milans del Bosch jeneralak obraren berri izan zuen egun batzuk lehenago, eta alarma guztiak piztu ziren. “Inork ez zuen ikusi, inork ez zekien zein eduki zuen, ezta ni nor nintzen ere... eta beldur ziren gaia nola landu ote zuen filmak”. Boschek Marcelino Mayor Oreja Espainiako Atzerri ministroari deitu zion berehala, eta honek bere iloba Jaime Mayor Orejari. Azken horrek bakarka biltzeko eskatu zion zuzendariari, emanaldi bezperan. “Lau minutuko elkarrizketa izan zen. Zera galdetu zidan: ‘Zenbat kostako litzateke Zinemalditik pelikula erretiratzea?’. Eta nik erantzun nion: ‘Astakeria da hori. Zuzendari batek bere filma jaialdi batetik erretiratzen duen lehenengo aldia izango litzateke zinemaren historian. Bahitu edo egin behar duzuen egin ezazue, baina epaimahaiak hautatu du pelikula eta nik ez dut kenduko’. Eta hor bukatu zen dena”. Tentsio handiko pasea izan zen *Burgosko prozesuaren* lehen emanaldia, polizia betea, baina ez zen ezer gertatu.



Segoviako ihesa (1981) filmarekin berriz –1976an Segoviako kartzelatik ihes egitea lortu zuten ETAko 40 kideei buruzkoa–, armak uztearen aldeko mezua zabaltzea egotzi zioten Uriberri. “*Miliek kritikatu zuten, besterik ez; garai hartan desadostasunak zeuden milien eta poli-milien artean*”. *Mikelen heriotza* (1984) arrakastatsurekin, zeresana eman zuen oster, bere zerrendetan homosexual bat nahi ez duten ezker abertzaleko kideak irudikatzeagatik. Jendearen aburuz, “*Burgosko prozesuarekin Batasuneko nintzen, Segoviako ihesarekin Euskadiko Ezkerrekoa, eta Mikelen heriotzarekin jada PSOEkoa. Aitzitik, ni ez nintzen inongoa, ez nuen inon militatzen*”.

Sasoi baterako gai politikoak alboratu bazituen ere, 1994an ETAkide eta prostituta baten arteko maitasun istorioari heldu zion Uribe *Días contados* (1994) lanean. Urrezko Maskorra irabazi zuen Donostiako Zinemaldian, baina pelikulari lotuta beste oroitzapen bat du iltzatuta zuzendariak. 1996an, ETAk Fernando Múgica politikaria hil eta hurrengo egunean eman zuten filma telebistan. “*El País* egunkarian Vicente Verdú kasik nik tirokatu izana egotzi zidan. Horrelako gaiak ukitzen dituzunean, errealtatea tarteko, konplexua da, halakoak gerta dakizkizuke...”.

Profesio kideen boikota ‘Yoyes’-i

Helena Tabernak ETaren ibilbideko gertaera gaitz eta polemikoa hautatu zuen *Yoyes* (2000) lehenengo film luzerako: Maria Dolores Gonzalez Katarain ‘Yoyes’, talde armatuko lehenengo buruzagi emakumezkoaren bizitza eta heriotza. “Jendeak ezagutzen ez ninduen ezta gai konplexua zenez, susmoak eragin nituen leku guztietan. Aktore batzuek ez zuten parte hartu nahi izan, hainbat teknikarik ere ez... Ideia izan nuenetik, bospasei urte igaro behar izan ziren egitasmoa gauzatzeko, produktore pila batek ez zuelako proiektua onartu. Eta oztupoak ere jarri zizkidaten, ekoizleari esanez ‘kontuz non sartzen zaren, ikusiko duzu...’ eta halakoak, hainbat sortzaileraren aldetik gainera, kideen aldetik, hori tristeagoa da; dena jakiten da denborarekin...”. Behin filma aurkeztuta, kritika nagusi bi jaso zituen: PSOE alderditik, Espainiako Barne Ministerioaz eta GALEkin zuen loturaz ematen den irudiagatik, eta ezker abertzaleko sektore batetik, ez zegoelako ados nola islatzen duen pelikulari ETAk Yoyesekin izan zuen jokabidea. ETaren suetena orduantxe amaitu izanak ere ez zion

“Lau minutuko elkarrizketa izan zen. Zera galdetu zidan: ‘Zenbat kostako litzateke Zinemalditik filma erretiratzea?’. Eta nik erantzun nion: ‘Astakeria da hori’”

IMANOL URIBE, ZINEGILEA

“Norbaitek esan beharko lieke AVTkoei, ETAko biktima izateak ez diela arrazoi handiagorik ematen, ezta beraiek bezala pentsatzen ez duena iraintzeko eta izorratzeko eskubiderik ere”

JULIO MEDEM, ZINEGILEA

batere lagundu pelikulari, banatzaileei eskaintzeko garaian.

Azkenik, urteak pasatuagatik botere politikoaren zentsurak eta boikotak bizirik dira uenaren seinale, sonatuak izan ziren Julio Medemen *Euskal pilota. Larrua harriaren kontra* (2003) dokumentalak harrotutako hautsak. “AVT terrorismoaren biktimen elkarteko kideen ustez motz geratu naiz, ez naizelako gai izan nire pelikulan nazionalismoa kriminalizatzeko eurek kriminalizatzen duten bortizkeria beraiekin, eta ez dut argi utzi Espainiaren gaitz politikorik okerrena (ETAren atzetik) EAJ dela (...) Gertuko norbaitek (maite dituen eta entzuteko prest dagoen norbaitek) esan beharko lieke AVTko kideei, banan-banan eta belarrira, ETAko biktima izateak ez diela arrazoi politiko edo ideo-

logiko handiagorik ematen, ezta inolaz ere eskubidea beraiek bezala pentsatzen ez duen oro iraintzeko, kalumniatzeko edo izorratzeko”. Zuzendari donostiarak *El Mundo* egunkarian kaleratu zuen eskutitzaren pasarte bat da aipaturikoa, Espainiako eskuindarren aldetik filmak jaso zuen jazarpen bortitzari erantzunez. Donostiako Zinemaldian Zabaltegi sailerako hautatua izan zenean, jaialditik kentzeko eskatu zuen María San Gil Donostiako orduko PPko bozerra maileak, baita Pilar del Castillo orduko Espainiako Kultur ministro popularrak ere. Espainiako Goya sarietarako ere aukeratu zuten, eta egunik okerrena pasa zuela aitortu du Medemek. “Ez dut uste bizitzan berriro halako egunik izango dudarik, ez eta merezi dudarik ere. Nire aurka manifestatu zen jende askok ez zuen filma ikusi ere egin. Kazetariak galdetzen zieten: ‘Baina ikusi al duzu?’, ‘ez, noski! Nola ikusiko dugu hori?!’. *Contra el pelota vasco, la nuca contra la bala* lelopean... Filma ez gustatzea ulertu dezaket, atentatuan hildako baten alarguna eta preso baten emaztea batera ateratzea gustuko ez izatea... Baina hortik esatera nire pelikularekin ari nintzela norbaiti tiro egitera animatzen... Hain da astakeria handia! Berriz frankismoaren garaia bizitzaren modukoa izan zen”.

Argi dio Helena Tabernak liburuan: filmak testuinguru historiko-politiko duen unetik, alde batekoek eta bestekoek kontrakoa ikusiko dute. Denen gustukoa izatea ez baita erraza, ezta fidagarria ere. ■

Zeluloidetako begiradak. Euskal Herriko 13 zuzendari-ekin bizketan (Elkar) liburuko pasarteak.

Liburuak

KRITIKA

Ihesaldi polita.

Anna Gavalda. Itzultzailea: Jon Muñoz.
Alberdania.
112 orrialde. 15 euro.

Helduen literatura

Gema Lasarte



Aise irakurtzeko eleberri motza

ANNA GAVALDA 37 urteko idazle frantziarra du. Gaztetasun horretan ordea, dagoeneko 38 hizkuntzatan irakurri dute 10 milioi lagunek baino gehiagok. Eta hizkuntza horien guztien artean, Alberdaniaren eskutik euskaraz irakurtzeko grazia izan du. Honako hauek argitara eman ditu: *Maite nuen* (2009) lehen eleberria; *35 kilo esperantza* (2006), eskolan arazoak dituzten 8-12 urte bitarteko gazteentzat idatzitako irakurketa gomendagarria eta esku artean dugun azken narrazio hau, *Ihesaldi polita* (2010).

Liburua aise irakurtzen da, eta Jon Muñozek euskarara egindako itzulpenak irakurketa samurru besterik ez du egiten. Beraz, larunbat goiz batean edo igande arratsalde batean erraz irakurtzeko eleberri motza da, edota euskaraz irakurtzeko trebezia handirik ez duten irakurleei oparitzeko modukoa.

Garancek, protagonistak, lehen pertsonan kontatzen digu non-dik norako guztia. Berarekin batera Lola ahizpa eta Simon eta Vincent anaiak dira eleberriko protagonista nagusiak. Derrigorrez joan beharreko ezkontza horietako batera abiatu dira, protokoloak eta ahaide-diplomaziak hala eskatuta: gogoak baino, betebeharrak bultzatuta. Baina Vincentek ezin du joan eta Garancek, Lolak eta Simonek ezkontza alde batera utzi, eta Vincent bere gazteluan bisitatzea deliberatzen dute. Hau da, *Ihesaldi polita* egitea.

Transgresio txiki horren bidez, bizitzan disfrutatzeke ere makurtu egiten garela gogoratzea garoatza Gavaldak. Istorioaren ardatz tematikoa dudarik gabe anai-arreben arteko haurtzaroa eta haurride arteko maitasuna da. Ihesaldia aitzakia narratibo gisa hartuta anai-arreben harremanak gogoratuko dizkigu Garancek. Harreman zintzoak, garbiak eta sendoak.

Protagonista bakoitzaren esperientzien berri ematen digu eta oso pertsonaia errealak dira, ondoan gurekin batera dabilzanak bezalakoak, gu geu izan gintezkeenak. Bizitzaren patua, lan munda, maitasunaren kudeaketa... Agian narrazioaren inflexio generik nagusia kontraste handien garapenean burutzen da. Oso pertsonaia kontrajarriak, antagonikoak sortu ditu Gavaldak eta gauza bera egiten du giroekin, oso kontrako giroak egokitzen baititu. Ezin bestela, izan ere, pertsonaia bakoitzak bere espazioa eskatzen baitu. Eta hori dena oso epe eta kontakizun motzean. Baina hor dago egile honen artea, izan ere, motzean diharduen horretan, izugarriko erraztasuna baitario bere lumari. *Ihesaldi polita*, beraz, gure eginkizunetan parentesi bat egiteko eta Frantziako landan kokaturiko literatur gaztelu horretara bisita gidatua egiteko. ■

Euskalduna ontziolako borrokak nobelatuta

Gotzon Barandiaran poeta ezagutzen genuen orain dela gutxi arte: *Arrakalak* eta *Katamalo* liburuak argitaratuak zituen Susaren eskutik. Iazko urte bukaeran berriz, eleberrigile lanetan estreinatu zen *Errotikekin*. 1980ko hamarkadan Bilboko Euskalduna ontzian izandako borrokak dira istorioaren erdigunea: beharginak protestan, euren

lantokia eraistearen kontra; haien kontra berriz, errepresio gordina. Ontziolako langilea zen Luis Urresti eta Euskalduna itxi ostean minbiziak eraso dio. Hiltzera doa. Eta horrek zeharo urratuko du Lore, Luisen alaba. Bien arteko solasek harilkatzen dute gatazka sozialaren inguruan eraikitako kontakizun hau. ■



Errotik.
Gotzon Barandiaran.
Susar.
194 orrialde.
16,63 euro.

Iruña-Veleiako aurkikuntzei buruz

Eztabaida luze eta sakona piztu zen Iruña-Veleiako erromatar garaiko aztarnategian egindako aurkikuntzen inguruan eta oraindik ez da erabat baretu. Alberto Barandiaran kazetariak indusketan lan egindako zenbait arkeologorekin hitz egin du, bertan aurkitutako grafitoen benetakotasuna eta faltsutasuna defendatzen duten txostenen edukiak jaso ditu, espezialisten iritziak bildu ditu... Emaizta *Veleia afera* da, kazetari lan zorrotza, arkeologia, epigrafia eta filologia ardatz hartuta osatutako liburua, egia izatekotan, Euskal Herriko eta, are, Europa mendebaldeko, aurkikuntza arkeologiko garrantzitsuenetakoa izango litzatekeenari buruz. ■



Veleia afera.
Alberto Barandiaran.
Elkar.
187 orrialde.
18 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Don Inorrez.
Bide Ertzean.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 43'34".
10 euro.

Irudimena, baliabideak eta galerari aurre egitea

BADIRA HAINBAT URTE Tolosako Ubeda anaiek gidatutako taldeak Euskal Herriko pop-rockean letra larriz idatzitako kantak egiten dituela. Joserra Senperena eta Fran Iturbe muntroak dira, baina ibilbidean izugarri ikasi dute guztiek. Aurreko erronkak handiak izan baziren ere, oraingoan Senperenak gidatutako hari-orkestra batekin lan egiteko aukera izan dute eta *Lizarbakar* moduko kanta ederrekin udazkena jantzi dute. Horrez gain,

baina, *Zurekin dantzatu nahi nuke*n poparekin, harizko instrumentuekin eta erritmoekin jolastu dute. Bada, baita, country pieza atseginik, pop-folk kanta biluzi bezain ederrak, erritmo eta intentsitate oso bereziak... Jantzi, tonalitate eta sentsazio oso desberdinak, baina batez ere, gero eta gehiago disfrutatzen dutela transmititzen dute eta hori ezin da ezkutatu.

www.bidertzean.com

Imanol Ubeda - Bide Ertzean

«Sofistikazioak edo epikak ez du beti kanta ontzen; alderantziz, esango nuke»

“Argia itzaltzen da zalan-tzen itsasoan”. Betidanik tartean idazle lagunei esker asko zaindu dituzue hitzak; baina dagoe-neko zuek ere, idazten eskarmentu handia hartu duzue... Gero eta erosoago sentitzen zarete hitzak egiten?

Egia da doinuak lantzen erosoago egoten garela eta testuekin izaten ditugula zalantza handienak. Gure diskoetan, hainbat poema musikatu izan dugu.

Baina oro har, guk geuk idatzitako testuak gehiago dira. *Non dira* diskoa izan zen denetan zailena. Gureak dira disko horretako testu denak eta 36ko Gerrari buruzko hitz horiek idazten denbora asko eman genuen. Baina ordainetan, jende askoren esker ona bildu genuen; bereziki, gerraren eta diktaduraren ondorioak zuzenean edo zeharka pairatu zutenen aldetik.



JOSEBA BARRENETXEA

Esango nuke ausentzia dela disko honen ildo nagusienetakoa. Berau inspirazio iturri indartsua izan ohi da, ezta?

Funtsean, itzali den maitasun bati egindako kantak dira nagusi *Don Inorrez*en. Horrelako egoeran zaudenean, ausentzian erreparatzea ia saihestezina dela esango nuke. Nik uste inspirazio iturri baino gehiago, barrutik gogor jotzen zaituen

harra dela galerarena. Eta gitarra batekin eta boligrafo batekin harrapatzen bazaitu, ausentziak eragindako ajea nekez utzi ahal izango duzu albo batean.

Pieza orkestraletatik aparte, badira oso kantu intimoak, folkyak, biluziak...

Gure kasuan, kantak oso oinarritzkoak dira. Gero eta gehiago. Jatorrian ere, hala direlako.

Ez dugu hori onartzeko inolako erreparorik. Musikari handiak ditugu taldean baina kanta dago beti ororen gainetik, edonoren gainetik. Grabazio estudioan, maiz, konponketa eder asko utzi ditugu albo batean, kanta elementu soiletara mugatuz. Nire uste apalean behintzat, sofistikazioak edo epikak ez du beti kantua ontzen. Alderantziz, esango nuke. ■

Ezpalak

JON TORNER

Bilboko Fant jaialdian 300 film proiektatuko dituzte



ZINEMA FANTASTIKOAREN BILBOKO FANT JAIALDIAREN 17. edizioa maiatzaren 2tik 8ra bitartean egingo da. 300 film labur izango dira ikusgai, gehienak Alondegiko Golem aretoetan. Halaber, Nontzeberri webguneak antolatutako Nontzefilmak sariketako lanik onenak ere proiektatuko dituzte. Fantropia saria, bestalde, Oskar Santos zinemagile santurtziarrak jasoko du. Iaz zuzendu zuen Santosek estreina-

ko film luzea: *El mal ajeno*. Fant jaialdirako sarrerak salgai daude jada: emanaldi bakoitzerako sarrerak 4 euro balio du, eta jaialdi osorako txartelak 20 euro.

Oteizaren 9.000 eskuizkribu Interneten

ALTZUZAKO Oteiza Museoak bere webgunean (www.museooteiza.com) jarri du Jorge Oteiza eskultorearen artxibo dokumentala. 44.000 fitxa dira orotara: argazkiak, bideoak, liburuak, prentsako artikulak eta Oteizak eskuz edo idazmakinez idatzitako 9.000 eskuizkribu. Dokumentu horiek guztiak jarri dituzte Interneten baina, egile eskubideak medio, horietako batzuk kontsultatu ahal izateko beharrezkoa izango da Altzuzako museora joatea. Museoko Ikasketa Zentroko arduradun Borja Gonzalezek sailkatu eta katalogatu du Oteizaren agiri ondarea. Gregorio Diaz Ereño museoko zuzendariaren hitzetan, “erakusketetan jar-tzen ditugu artistaren agiriak, eta haren pentsamendu prozesu osoa da orri horien atzean dagoena”.

Ane Artetxe harpa irakasle donostiarrak *Harpa airean* CD-liburu didaktikoa plazaratu du. Umeei zuzendua, harpa jotzen erakustea du xede Artetxek. CDan 29 abesti jaso ditu; eta liburuxkan azalpen teknikoak, harparen historiari buruzko datuak eta zortzi abestiren partiturak. Patxi Gallegoren marrazkiek laguntzen dituzte azalpenak.

Kim Longinotto dokumentalgile britainiarra sarituko du Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren 9. edizioak. Film luze eta laburren proiektzioak, erakusketak, mahai-inguruak, kontzertuak eta dantza emanaldiak jasoko ditu egitarauak. Zinemaldia apirilaren 8tik 15era egingo da, eta Longinottok 9an jasoko du saria Victoria Eugenia. Ekitaldi horretan bere azken lana *Pink Saris* estreinatuko dute.

Javier Manzanos (Iruñea, 1964) izango da Uharteko (Nafarroa) Huarte arte garaikideko zentroko zuzendaria, Patronatuak hala erabakita. Artearen Historian lizentziatua, Iruñeko Udalean eta Nafarroako Gobernuan aritu da lanean Manzanos. Bere egitekoe-tako bi Nafarroako artistak laguntzea eta beste zentro batzuekin elkarlana sustatzea izango dira.

● **Susana Soto Donostiako San Telmo museoko zuzendariak Berrian:** «Publiko mota asko daude, baina uste dut museo bati herritarrek autoritate zientifikoa eskatzen diotela edozein gai tratatzen duenean. Badakizu museo batean talde tekniko bat dagoela, beste erakunde batzuekin harremanetan dagoena eza-gupen tekniko eta zientifikoak gizarteratzeko. Bestetik, egungo gizartea nahiko erosozalea da, eta ezagut-zak bai, baina modu erraz eta erakargarrian ematea eskatzen du».

(Martxoaren 28an inauguratu zuten San Telmo museo eraberritua).



ANDRA MARI
restaurant

Elexalde Auzoa, 22 • Galdakao, Bizkaia
Tel.: 94 456 00 05 • www.andra-mari.com




Abarak

ESTITXU EIZAGIRRE

Ilargi oso, ilargiz erdi

Mamá nido, mamá cuna, mamá teta, mamá luna. Tes-tua eta irudiak: Gloria Lizano. Bularra ematearen alde-ko taldeen Kataluniako Feredazioak (FEDECATA) anto-latutako II. Ipuin Ilustratuetan ohorezko aipamena.

HONA AMA-UME lotura, 11 marrazkitan: haurdunaldia, erdi-tzea, elkar ikusi zuteneko lehen aldia eta bularren bidezko harremana. Marrazki borobil-orobilak dira, kanpoa-barrua bat zirenekoa islatzen dutenak. Zuri-beltzean eginak (izkutuka kolo-reztatzeko tentazio handia txikientzat), irudi hauei xamurtasuna, ukimena eta usaina darie. Haurrei euren bizipenak azaltzeko ez dut irudi errealistagorik aurkitu. Egile zeutarrak emakumeen sexualitatea jorratu izan du bere lanetan, baita amatasuna ere, eta elikadura subiranotasunaren oinarri den emakume-hazia. Gazte-laniazko testu laburrak ezkerrean eta irudi sugerenteak eskui-nean, euskarazko haikuak sortzea norberaren esku hartu behar (merezi luke euskarazko ediziorik). Interneten erraz eskuratuko duzu, 10 euroren bueltan (irudi batzuk PDFan daude ikusgai). ■



CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

CuadraBus

www.cuadradius.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadradius.com

IZAN ZAITEZ HALABELARRI

Jaso irratia,
ni banaiz!

Hala Bedi taberna, Kutxi,98.
halabelarri@halabedi.org
www.halabedi.org

**Euskal Herriko irudi-banku
haundi eta merkeena**

www.baskimagen.com

Ihesi

ITZIAK MADINA

Argazkiak: Josu Santesteban

Euskal Herria ezagutuz:

Auritz (Nafarroa)



Karrika bat Konpostelarantz

Pirinio lerro katearen iraganbide, Ibañeta zaindari, Auritz eta bere lautada asko ikusiak daude. Erromatarren, arabiarren, frankoen eta armada gehiagoren burrunbek dardararazi zituzten, sutan utzi, birrindu. Baigorriarrek behin baino gehiagotan erasotu. Auriztarrek baigorriarrei mendekatzen zitzaizkiela. Orain, bazterrak baretu direla dirudi. Erromesak izaten dira mendi zeharkatzale, edo mendizaleak ala gero eta artzain bakarragoak.

“JAUNA JAIKI BEDI, gidaria zain dauka beherean”.

Haize eztiak alegeraturiko udako goiz tirrintean, gaueko ihintzean zuritu mihise artean, gizon bat, ezin etzauntzatik jalgiz. Kasko urdina azaltzen hasten zaio, eguzkiak urreztu bular eta beso azkarak. Neptunoren koroa irauliak matele-

zur sendoa estaltzen dio. Dio marrikak, ilea harrotuz:

“*Fuckin’ red wine!*”.

“Iepa Ernesto! Bahator, ala zer demonio?!”.

Demonioa, deabrua, gorriak, adardun akerrak, Madrilgo setioa, bonba hotsak, Weirmarch eta Gernika, Ebro, Almeria, Mola, zirimo-

laka dabilta Illinoiseko erreporte-roaren buruan. Eta makia, eta Iratiko oihana. Preseski, hara doa, arrantzatzera. Aurten ere, San Fermin gogorak egin zaizkio.

“*God!*”. Ohetik altxatzea lortu du. Iruñean utzi duen Perla hoteleko sotiltasuna ez zaio dolutzen. Badaki gidaria, sukaldaria eta man-

Auritzeko karrika nagusia, nola Konpostelako hamaika erromesen pasabidea, hala ostalaritza negozioaren haztegia. Ezkerrean ageri den Txiki Polit ostatuan egin omen zuen lo Karlos VII.ak, Espainiako errege izan nahi baina tronua erdietsi ez zuenak.





Burguete ostataua, Ernest Hemingwayren hainbat egonaldi eta piano-saioren lekuko izandakoa.

doa aiduru dituela, Auritzeko ostatuko atearen aitzinean, mando kakoletan kanpatzeko materiala, egun batzuetarako hazkurriak eta arno zahagia doazela. Eskailerak jautsi, bezperan jo zuen piano iluna ferekatu, sukaldean etxekanderea agurtu eta kabalaren kaka meta biltzen ari den palaren karrankarekin bat, “*Buenos días!*” ozena botatzen die nafar menditarrei. Behiala Kaliforniako izan ziren Zapataren edota Flores Magonen karabana matxinoan joatekoa dela pentsatuko du idazleak. Espainiako gerla galduak eta errepresio zikoitzak baina, ametsa zapuzten dizkiote. Diktadura urrina darion Auritzeko karrikari monturaren kaka freskoaren usaina gehitzen zaio. Gizonemazte gaizki armatuez oroitzen da, Nafarroakoak ez ziren beste mendi malkar haietako kobazulorako sarreran.

“*Let’s go, guys!*”. Xapela zabala bermatzen du eta alkandorako sakelatik petaka ateratzen. “*Hoy, mucho calor, amigo!*”, dio ezpainak ukaraiaz idortuz. Auritzeko ezkilak zortziak jotzen ditu, doi-doi. Itzalez itzal, Urrobi ibaian gora bi auriztar gizonek Ernest Hemingway laguntzen dute barneko suga-

rra eztitu ohi dion Iratiko bere arrantza-egonaldira.

Auritzeko “hiri ona”, Orreagako santutegiaren auzoa

Urrobi ibaiaren inguruko bailara ordokian gozokiro dago Auritz, Iparrean mendi gorez harresitua: Ortanzurrieta (1.570 m), Mendi-

Orreagatik Konpostelara abiatzen den beilari kopuru izugarri bezain etengabeak ekarri ditu Auritzera bidean famatuak diren ostatu eskaintzak

motz (1.499 m) eta Astobizkar (1.506 m), besteak beste. Hamabost kilometro koadroko lautada hori Erroko Konderrikoa izan zen XI. eta XII. mendeetan. Hori dela eta, XI. mendeko *Nota Emilianense* San Millango Kodizea oinarri harturik, Jimeno Juriok erakutsi zuen Roncesvalles euskarazko “Erro zabal” toponimiatiak zetorkeela. Hedadura honetan leku izen zehatzagoak izanik eta, Ibañetako gai-

nari Auritz deitu izan ere zaio. Finean, mendi gailurra, santutegia nola herria ere elkarloturik daude historiako gertaerak eta auzo harremanak tarteko. Egiari zor, Auritz “zenbait mendez” Orreagaren aitzinekoa izan zen, historialarien erranetan. Abadetxea egonkortu zen arau, Auritz “burgo” bilakatu zen joan zen, hau da, herri gotortua. Baina “burgoak” herri baten beste batekiko menpekotasuna adierazi nahi duenez, askotan nahasi izan dira Auritz eta Orreaga, honek lehenaren gainean erabaki eskubidea zuela pentsatzera utziz.

Nolakoa zen beraz, Auritz? XII. mendean, Sancho Sanchez Erroko Kondeak Aveyron (Okzitania) eskualdeko Conques-ko monasterioari opari egin zion. Baina Nafarroa eta Aragoiko Erregea Alfonso Borrokalaria Clunyko ordenaren kontrakoa izanik, urte gutxi iraun zuen jabegoak. Hortaz, Auritz Zangozako merindadeko bailia bihurtu zen eta Nafarroako “hiri ona”. Hainbestearaino non Gorteetan ordezkatu izan baitzen. Eta Foru legeei jarraikiz, San Nikolas bere elizan batzar irekia egiten zen alkattea, juratuak, eta unibertsitateko



Pilotaren omenez herrian jarritako oroitarria.

ordezkari guztiek parte hartzen zutela.

Orreagako auzoarekiko harremanak 1219tik harat jasota daude ofizialki, orduan Auritz hasi baitzen monasterioak eskatu zerga ordaintzen. 1546an Auritzeko bikario izendatzeak gatazka sortu zuen bi herrien artean. Orreagako abadeek Orozeko Martin izendatu zuten, Auritzekoek arbuiatua. Meza aitzin eta apezzez jantzita zegoela, hiru auriztar gogorki jazarri zitzaizkion eta meza kantatzea eragotzi. Kontseiluak hiru hilabeteko desterrura zigortu zituen. Eta Orreagak bikarioa izendatzeko bere gaitasuna mantendu zuen mendeetan zehar, 1893ra arte. Gaur Auritz herri-udaletxea da, Erroko baitetik kanpoko.

Ura herri erdian

Noizbait, karrika bakarrekia izanzen Auritz, dudarik gabe. Herria antolaturik dago Iparretik hegora zabalera osoan zeharkatzen duen kale nagusiaren inguruan. Hau luzea da, gainbehera eztiarekikoa. Espaloi hertsia ditu, xuxurlariak ordea. Karrikaren bi aldeetan alabaina, mendiko turrusta isurtzen baita zementuzko ubidean, iragan dorpearen oroitarri. Ezbeharrak nola, hala gerlek herriko etxeak behin baino gehiagotan kiskali baitzituzten. Auritzen zoritxarrari aurre hartu nahi izatea eta suari exorzisioa egitea da ura eskura ukaitea. Auritzera ibiltari doanak berezitasun gozua aurkituko du. Martxoko elurroundoko egunaz badoa gainera,

haur arduratsuak begimenduko ditu helduen gisan burdinazko palaz elur metak arroileratzen, urak eta eguzkiaren printzeek gesal ditzatela.

Auritzeko karrika “errromesen galtzada” deitu zen XVIII. mendearen bukaera arte. Ez da gutxiagorako ezen XV. mendeko kronika batek zioen bezala, Auritzeko biztanleak “beilariak herriatik pasatzean” uzten zituztenez baliatzen baitziren. Konpostelako bidearen errromesaldiaren oldarra 600 urte lehenago abiatu zegoen, Done Jakue Apostoluaren hilobia atzeman zutelarik 813. urtean. Orreagakoaren ondoan eta honek kudeaturik, Auritzek ere bere ospitalea zeukan, *elemosinarium* izenekoa, 1794ra arte iraunen zuela.

Denborak aldatu badira ere, Konpostelakoa ekonomia suspertzen jakin izan duen bidea dela ez daiteke uka. Orreagatik Konpostelara abiatzen diren beilarien kopurua izugarri bezain etengabea da gaur, uda zein negu. Horrek Auritzera ekarri ditu Konpostelako bidean famatuak diren ostatuen eskaintzak. Eguneko menu ala platerak eta lo egiteko hotelak ala ganbarak etxeetan, gosariarekin ala beste, hautua dago hainbat hizkuntzatan, gainera. Errotulazioa ere maskorra ezagunaren inguruan egi-

Larreko

“Ai eta mila aldiz ai!” tristetzen zen Fermin Irigarai Larreko (1869-1949) sortzez auriztarra, idazle, mediku eta Nafarroako Ospitaleko Zuzendari izana. *Gerla urte, gezur urte* liburuan euskararen egoera tamalgarriaz ari zen honela. 36ko Gerraren garaian idatzi zuen, ezkutuan.

Sorginen auziak

Auritz inguruan, mendiko izen batzuek paganismo arrastoa darakutsate: Basajaunberro, Sorginaritzaga eta beste. 1525ean Balanza inkisidoreak bost herritar auziperatu zituen eta San Nikolas elizan haien San Benitoak luzaz zintzilik egon ziren.



ten da, nagusiki. Hala ere geroak baizik ez daki, krisia ezagutzen duen XXI. mendeko herrialde garrantzietako ekonomian Konpostelarako beilak zer garrantzi izanen ote duen. Eta ikusgai ere dago biharko Auritzek Konpostelako bidearekiko zer harreman izanen duen. Momentuz, Auritzen ikus ere daitezke Hemingwayren urratsetan dabiltzan kuriosoak, japoniarrak omen direlarik ikusgarrienak. Diote –ala herriko elezaharra ote da?– ideia bakkarreko izaten direla: idazle amerikarrak jotzen zuen pianoaren ondoan potreta hartzea.

Auritzeko etorbide nagusitik baztertu eta, “Erro zabal” bataiatu zuten lautada berehala nabari da. Mendebaldera Lindux zuritua, Nafarroa Behereko lehen herria Urepelerekiko muga naturala eta ekialdean berriz, Lepoeder eta Aezkoako Garraldako herria daude.

Zelaia mintza baledi

“Erro zabalak” ikusitakoak kontabiltza izu gintezke. Zeltiarrek, erromatarrek, arabiarrek, frankoek, galesek edota frantsesek noizbait zapaldu dute zaldiz nahiz oinez, burdinez estaliak, armez josiak, odolez hustuak ala odolez egarrituak. Dela mendiak zeharkatu berri, dela egin beharrak. Gerla kontuetan lautadak armada armadaren aurka-

ko olatu basatiaren adiera latza dauka, hezur hautsi, gorputz zulatu, buru lehertu, jendeen eta animalien deiadar eta garrasiena. Horra zibilizazioaren omen laudagarria, Frantziako eta Espainiako estatuak bilakatuko zirenen arteko mugak finkatu aurretik. Ondotikako emaitza maleruskari, ez da askoz goraipagarriagoa. “Frantses” auzoengandik gerizatze eta muga defenditzeko asmoz, XVI. mendetik soldaduen tropa egonkorra izan zen Auritzen. 1856ko ituna arte, baigorriarren eta auriztarren arteko gatazka ugari gertatu zen, alhapide, larre eta oiha-nak zirela kausa. Artaldeak eta beste lapurtuko dizkiote elkarri Auritzekoek ala Baigorri aldekoek, etxolei sua emanen, ikatza giteko zuhai-

tzak botako. 1718an, Auritzek Nafarroako Diputazioari hel egiten dio laguntza eske. Izan ere, Etxauzeko kondeak zirikatutik, 600 baigorriar sartu baitziren Auritzen eta herriari su eman, ahal zuten guztia lapurtzen ibili eta.

Karlistek ihesi joatean Orbaiztetatik zein Auritzetik pasatzea hautatu zutela diote bigarren karlistadetako kronikek. Zumalakarregi Auritzen egona zen 1834an. Eta 1872ko otsailaren 26an omen zuen Karlos VII.a errege tronua gabeak herrian lo egin; diotenez, Txiki Polit ostatuan.

Ordurako Auritzek mugako herriaren izaera barneraturik zeukan. Harritzekoa da “frantsesa”-ren izengoitiak zer pisu lortuko zuen, denborarekin. Are gehiago, zer dikotomia hausgarriren sortzaile izanen zen. Jakin behar da 1789ko frantses iraultza piztean, Ipar Euskal Herriak inbidiatzen zituela Gipuzkoa eta Nafarroa, han erlijio giristinoaren kultura ez zegoelako debekatua. Aldudeko herriak demagun, Nafarroako bihurtzeko eskari ofiziala helarazi zuen Iruñera. Hots, baxenafarrek sortzetik gaitzetsi zuten unibertsal bilakatu nahi zuen iraultza. Konbentzioko gerraren karietan 1794an Auritzera sartu zen frantses armada. “Iraultzaren barba-rok” herria setiatzeaz gain, herritarak hil eta herriari su eman zioten. Baina mugaz bestaldeko euskaldunek “frantsesarekiko” nafarren ikuspegi bera bazuten ere, kronikagileek “frantsesa” deitzen dute Baigorriko haraneko Aldudarra nola ere Garrauedo Baudrot armada inbaditzaileko buruzagiak. ■

Tolosako Babarruna

Hoberenak soilik aukeratzen ditugu

☎ 943 650 253
www.tolosakobabarruna.com

SOLOZABAL
Eskura ezazu teorikoa 5 egundetan edozein gidabaimenerako

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390
www.solozabalautoeskolak.es

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Gaddafiren ordezkioak

Gaddafiren segurtasuna zaintzeko bere berdin-berdinak diren hamar ordezeko prestatu omen zituzten errebolaren lehen egunean bertan, agerpen ofizialetan azal zitezten. Prestaketa saio etengabeak eskaini omen dizkiete.

Joan zen asteko prestaketa bilerrara azaldu zirenean, operazioaren arduradunak hala esan omen zien:

– Bi albiste ditut zuentzat.

Bata ona eta bestea txarra. Onarekin hasiko naiz. Joan den asteko borrokak oso gogorrak izan badi-ra ere, gure buruzagi Muammar Al Gaddafi bizirik dago!

– Ondo!!! Biba Gaddafi!!! – guztiek–.

Eta isiltasunezko segundu batzuren ondoren, ordezekoetako batek:

– Eta zein da albiste txarra?
– Beso bat galdu duela!

Soluzioa

I	E	U	S	A	D	A	R	A	N	E	L	A	O	R	T	U	N	I	K	A	A	M	A	I	A	O	R	R	I	O	M	U	S	A	G	A	R	R	I	A	D	A	U	N	A	T	I	Z	E	I	O	A	S	I	M	A	N	U
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---

**NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA**

11

Sarrerak salgai:
www.bertsosarrerak.eu

www.nafarroakotxapelketa.com

etortzen balitzaz gintza gindinetik txukun
ipini gindinetik txukun
ONDU gindinetik txukun
jarri gindinetik txukun
ahizoz gindinetik txukun

FINALA

APIRILAK 9
LARUNBATA
17:00etan

IRUÑEKO
LABRIT PILOTALEKUAN

estatuak
arabiar
azkeneko
bertsolari
DASTATU
betikoa
erostu
gertu
baita
uste
balidintza
polito
muke



Antolatzailea:



Laguntzailea:



Osasuna

JABIER AGIRRE

Udaberriaren etorrerak erasan dizu?

URTE-SASOI ALDAKETEK nahasmenduak eragiten dituzte zenbait pertsonaren aldarlean, nekea eta bestelako trastorno iragankorrak eraginez. Horrelako erasanak hotzetik berora pasatzen garenean gertatu ohi dira, negutik udaberrira pasatzean, esate baterako, eta baita alderantziz ere, udazkenean sartzen garenean, adibidez.

Konturatuko zinen, honezkero, egunak nabarmen hasi direla luzatzen. Bada, gure gorputzak esfortzu bat egin beharra dauka tenperaturan, argian eta presio atmosferikoan gertatu diren aldaketa guztietara moldatzeko, egokitzen horrek gauza naturala, berez gertatzen dena, dirudien arren.



MEXICALIFACIL.COM

Aldaketa horiek eragina daukate neurotransmisoreen produkzioan, pertsona bakoitzaren aldarlea edo bizi-tonua erabakitzen duten substantzien sorkuntzan, alegia. Melatoninak, endorfinak eta serotoninak —hirurek zerikusi handia dute ongizate sentsazioarekin— aldaketak izan dituzte beren produkzio-zikloan, eta horixe izaten da pertsona askok, urte-sasoi honetara iristearekin bat,

apatia, kontzentrazio-falta edo neke fisikoaren sentsazioa izateko arrazoi nagusia.

Estatistikek diotenez, biztanleen erdiak jasaten du, gutxi gorabehera, bizitasun edo indar falta hori. Baina ez dago kezkatzeko aparteko motiborik, sintomak aldi baterako soilik izaten baitira, bi aste pasatu baino lehen gutxituz edo desagertuz, eta kasurik gehienetan inolako tratamendu edo medikaziorik gabe gainera. Hona hemen, dena den, egoera hori arintzeko gako batzuk:

- **Eguzkia.** Antidepressibo naturalik onena da, serotoninina eta melatonina produkzioa gehitzen duelako. Eguneko ordurik argitsuenera 20-30 minutuko paseotxo bat ematea aski izango da zure aldarlea modu ikusgarrian hobetzeko.

- **Ariketa fisikoa.** Egunero pixka bat saiatzeak, modu lasaian bada ere, gorputza aktibatuko dizu, nekeari aurre egiten eta gauez hobeto lo egiten lagunduz.

- **Loaldia eta ordutegiak.** Lotako orduak errespetatzea (7-8 ordu egunero gutxienez) ezinbestekoa da gorputza deskantsatuta egon dadin. Horrela, bizkorrago egokitu eta moldatuko da. Horrez gain, ordutegien errutina jarraitzea komeni da jaikitzerakoan eta oheratzerakoan, baita asteburuetan ere.

Babeslea: iametza Interaktiboa

A bisfenolaren beste ondorio kaltegarri bat aurkitu dute

Martxoaren 1etik debekatuta dago Europar Batasunean A bisfenol izeneko konposatu organikoa erabiltzea biberioiak egiteko. Ezagunak ziren bisfenolaren kalte batzuk, baina berriki beste bat aurkitu du Frantziako ikerlari talde batek: ornodunen barne-belarriari eragiten dio. Biberioietan galarazi arren, bisfenolaren erabilera ez dago debekatuta bestelako artikulatu batzuen fabrikazioan. <http://ttiki.com/25490> (Frantsesez)

Mindutako gorputz-atalari begiratzeak mina arindu dezake

Ondorio harrigarri horretara ailegatu da Europar egindako ikerketa bat. Gainera, zenbat eta handiago ikusi mindutako ingurua, orduan eta gehiago arintzen da oinaze sentsazioa, ispiluekin egindako esperimentuan behatu ahal izan dutenez. <http://ttiki.com/25491> (Gaztelaniaz)

EBko saiakuntza klinikoak, Interneten ikusgai

Europako Sendagaien Agintziak hiritarren esku ipini du, Interneten bitartez, EBn baimenduta dauden medikamentuen saiakuntza klinikoei buruzko informazioa. <http://ttiki.com/25492> (Gaztelaniaz)

Unai Brea

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Urre galdua

HUR ETA EZKUR, DENAK URRE. Urre galdua. Hurra zokoratua eta ezkurra... Harrapazan ezkurra! Guta-ko erdik ezagutu ere ez genuke egingo. Izan ere, marka da gurea!

Ezkurretan dugun abe-rastasuna erabat ahaztua dugu, baina bada oraindik jakintza haren aztarnaren bat. Garai bateko gure baso-ko herrietan, gailur eta agirre gotorretan, ezkur-irina-ren berri bada. Etnobotanikariren batek ere Nafarro-ako Bakedanon jandako ezkur-ogiaren berri jasoa du. Urbasapeko Ameskoabarrenen herri honetan arta-ditik bada (*Quercus ilex*), baita, inondik ere, arteari ete-kina ateratzeko artetik ere.

Ezkur-ogia egiteko patxada metatu eta, soseguz, hartu petxu: alea zuritu, ordu pare batez irakin, iraki-naldian belzten denero ura berritu, ezkurak ere beltz-beltz egingo dira, labe bero-beroan ordu betez lehortu, xehe-xehe ebaki eta eho, ordu erdiko beste berotu bat eman labean, errotan eho, berriz errotan eho... Honela ezkur-irina izango duzu, ondoren ogia egiteari ekin. Edo pastela, bizkotxa...

Ezkurra urre izan bada, hurra zer esanik ez! Hurra



WWW.ACCUESP.COM

eta urrea hurren, hurreko, hurko. Sagardogile eta musi-kari izanagatik lagun dudak baztandar batek bere ingu-ruetako berri eman berri dit. Aritzakun eta Urritzate aita-tu dizkidanean lehenaz gain liluratu nau.

Erromatarren garaiko meatzeak ditu ahoan: Mine-tako zokoa, Minetakozoko turrie, Urreputzu, Urrepu-tzugañeko, Urreputzubeitiko, Meatzetako kaskoa, Meatzetako bizkarra, Meaka, Meatzako gaina, Usa-tegiko Meatzeko lepoa... Bada meari buruzko aipa-menik bertako toponimian. Urrea ateratzen omen zuten erromatarrek Baztanen, Baztandik. Teknika aparta zuten: ura pilatu, mendia jotzera bideratu eta lurra askatu. Honela harrotutako lur pilak, erreketatik desbideratutako urekin nahastuta zanga edo erreten artifizialetan barrena eraman arazten zituzten. Hauetan, tarteka ote (*Ulex europaea*) pilak sare gisara jarri eta urre-koxkorak bertan kateatzen ziren. Otearen arantza urre arrantzan. Otea txarra omen da, gero! Sasoi honetan dotore asko ageri da, baita Baztanen ere, hori-hori lore batean. Urrea urre koloretan lore.

3 eta +

Andu Lertxundik "Hirusta" izena proposatu du erkidegoko hiru kutzak sortu behar duten bankua-rentzat. Aurrezkitarako omen diren kutzak lotu, ezkondu, hedatu, txikotatu, kateatu, uztartu... zer egin behar duten ez dakigu. Ez eta berehalakoan jakingo ere!

Hirusta izenari tiraka, hiru orriko hostoa duen landarea da, *Trifolium* generokoa. Hiru hostoxka hostoko. Hirutasuna. Hirutasun santua haren oroi-garri ote?

Andurekin hiru nator, bere arrazoiei neure bi erantsiz. Bata, hirustak papilionazea familiako lan-dareak dira. Landare jende honen ezaugarri nagusia, bizi den lurra etengabe ongarriz aberastea da. Bestea, *Trifolium* genero berekoa dugu, dute, pago-txa, *Trifolium incarnatum*.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Bolaleku S.A.T.

Konpost planta

Bi•lurra
Compost ongari organikoa

LORE•LURRA
Sustrato unibertuala

Lur begetal ongarriritua, ereindakoa, estaltzekoa,
ldor apaingarriak, trabesak.

Bakio bidea, 13 (Emerando)
Tlf.: 94 674 33 55
677 42 64 00
www.bolaleku.com

48100 Mungia
Bizkaia

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Jainkoa vs. sismologia

THOMAS ALLEN



Ezkerrean, *Lot Sodomatik ihesi* (Benjamin West, 1810). Eskuinean, Sodoma eta Gomorraren ustezko kokalekua, gaur egun.

ANTZINAKO PALESTINA, K.a. 2.300. Itsaso Hileko lautadako Sodoma eta Gomorra hiriak suntsituta geratu omen ziren. Bibliaren arabera, “Jaunak sufre eta suzko euria bota zuen zerutik”, Abrahami jakinarazi zionez, “hiri horien bekata larriegia” zelako. Graham Harris geologoaren arabera, suntsitzea lurrikara batek eragin zuen. Baina zientzialari gehienek, hiriok existitu izanaren arrastorik aurkitu ez denez, Itun Zaharrean jasotakoa fikzioztat eta Harrisen hipotesia susmo soilizat jo izan dute; Cambridgeko Unibertsitateko ikerlari talde batek gaiari heldu dion arte.

Palestinako inguru horietan, Brontze Aroan soilik –K.a. 3.800 eta 3.200 urteen artean– izan ziren hiriak. Sodoma eta Gomorra aurkitu ez badituzte ere, inguruan oliba olio fabrika baten arrastoak topatu dituzte; gune populatuak egon bazeuden, beraz. Gainera, Numeirako aztarnategi batean hiru gizakiren hezurak aurkitu dituzte, hausturaz beteta, sabaia azpian hartuta. Karbono-14aren metodoaren bidez, sabaia K.a. 2.350 urtean erori zela ondorioztatu dute. Itsaso Hila, plaka arabikoak eta

afrikarrak bat egiten duten gunea, oso ezegonkorra da. Itsaso Hileko sedimentuen geruzak aztertuz, garai hartan gutxienez 6 magnitudeko lurrikara izan zitekeela ikusi dute.

Baina Bibliak ez du lurrikararik aipatzen. 80ko hamarkadan, jordaniarrak errepide bat egiten hasi ziren inguruotan eta, zundaketak egiten ari zirela, lur azpiko gas metanoa ziztu bizian irten zen eta su hartu zuen. Horra hor Bibliako sua eta sufrea. Hala ere, nola da posible Sodoma eta Gomorraren arrastorik aurkitu ez izana? Harrisek dio lurrikarak luiziak eragin zituela, eta inguruko lurzoru porotsuetan likidotzea gerta daitekeela frogatu dute makina zentrifugatzailer batean egindako simulazioaren bidez; hamabost bat minutuan hiri suntsituak hainbat kilometro mugitu omen ziren Itsaso Hilarren hondoan galdu arte.

Horrenbestez, aintziraren hondoa induskatu bitartean, Sodoma eta Gomorraren suntsiketa benetan gertatu izana posible dela frogatu dute. Eta bekatu larria lurralde arriskutsu hura bizilekutzat aukeratzea izan zela.

Arrastoak

Europako lehen drogazaleak

ALBERTO ASENSIO

PSILOCYBE HISPANICA onddo haluzinogenoa duela 6.000 urte kontsumitzen zuten europarrek, Villar del Humoko (Espainia) aztarnategiko labar pinturak aztertutik dituzten ikerlarien arabera. Margolan sorta horretako bi irudik giza eta onddo ezaugarriak dituzte;

horrez gain, inguru horietan oso ohikoak da onddo espezie hori. Horretan oinarritu dute arkeologoek hipotesi hau. Aljerian 7.000 urteko antzeko irudiak topatu dituzte, baina Cuencakoak dira onddo haluzinogenoen kontsumoaren Europako arrasto zaharrenak.





Jesus Torquemada

Donostia, 1955.
Nazioarteko politikan
analista aditua.
Informazioaren Zientziak
ikasi zuen Iruñean. Eginen
hasi zen kazetaritzan.
Golkoko lehen gerraz
geroztik –1990-91n Irakek
Kuwait inbaditu zuenean–
bere kasa dihardu. Egun,
EITBrako lanean ari da eta
konferentziak ematen ditu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

«Gaddafik interbentzio militarra gogortzea nahi du»

GOLKOKO GERRAZ geroztik (1990-91) hasi zen jendea arduratzen nazioarteko politikaz mendebaldean, bere iritziz. Espainiako Estatuan –Aznarren gobernu garaian, 2003an– interesa areagotu zen Irakeko inbasioaren zioz: “Irakeko gerra espainiarra ere bihurtu zen. Eztabaida soziala azkartu zen harrezkero. Nik ere, nire lanarekiko interesa gehiago nabari dut” diosku Jesus Torquemada nazioarteko analistak.

Herritarrok zer ideia edo ezagutza dugu nazioarteko politikaz?

Satelite bidezko telebista edota Internet direla medio informazio asko dago, baina paradoxikoki ez gaude hobeto informatuak. Gehiegizko informazioa dago, asko hautatu behar da. Adibidez, Twitter

edota bitarteko berrien atzean ez dakigu nor ari den informazioa ematen. Manipulazio tarte handia dago. Gure gizarteak munduan gertatzen denaz jakiteko bitarteko gehiago dauka, baina horrek ez du egia bermatzen. Bestalde, berehalakotasunak gertakariaren larritasuna eragiten du jendearengan. Japoniako tsunamia zuzenenean bizi izan dugu. Duela 40 urte jendeak irratia zioena zekien eta duela 500 urte itsasikararen notizia bost urte geroago jakiten zuten. Berehalakotasunak eta “hurbiltasuna”k mundua eta informazioa aldatu ditu.

Fukushiman gertatutakoaz irakaspenik atera al duzu?

Bizitzen ari garen notiziaren konbertsioa ulertzeko adibide ona da. Noti-

zia espektakulua da. Hedabide handiek, telebistek bereziki, notizia espektakulu bihurtzeko joera dute. Denak eksklusibo izan behar du: “Mendeko gertakaria eta ikusgarria”. Adibidez, elur egin du eta “mendekoa” dela diote. Hara, orain gutxi antzekoa bota du, eta horrelako zenbat izango dira mendean oraindik ere? Japoniako katastrofearen lehen egunetan Europako Batasuneko energia komisarioak apokalipsia aipatzen zuen, baita hainbat hedabidek munduaren bukaera ere. Denbora eta distantzia behar dira informazioa eman aurretik, adjektibo erabatekoak eman baino lehen itxaron behar da.

Mundua aldatu da azken 40 urteotan.

Mundua duela 40 urte baino askoz konplexuago da. Orduan bi aktore



"Gaddafik esan duenez, irabazten badu, txinatar, brasildar edota indiar petrolio-konpainiak sartuko dira Libian. 'Kasualitatez' herrialde hauek Segurtasun Kontseiluan abstenitu egin dira".

zeuden: AEBak eta Sobietar Batasuna, eta haien ondoan Ekialde komunista (ez asiarra) eta Mendebaldea. Munduaren gainerakoak ez zuen deus esaterik. Xake taula bat zen eta bi jokalaririk beren partidak jokatzeko zituzten. Errazagoa zen Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko munduen lehia interpretatzea. Orain konplikatu da zeharo: beste jokalaririk sartu dira jokoan, indartsuak, Brasil eta Txina, besteak beste. Hauek ere aberatsen mahaian bilatzen dute lekua, bizi nahi dute gu bizi izan garen bezala. Honi guztiari immigrazioa, globalizazioa eta populazioa ugartzearen fenomenoak gehitu behar zaizkio. Datu bat: duela 30 urte baino ia 2.000 bizilagun gehiago gaude munduan.

Zergatik izan dira errebolta arabiar herrialdetan orain?

Faktore anitz dago hau guztia azaltzeko. Duela 30 urte jada arabiar munduak lehertuko zuela genion. Orain izan da, belaunaldi gazte eta berri bat dagoelako; duela 30 urtekoarekin ezerikusik ez duena. Populazio arabiarren erdiak 30 urte baino gutxiago dauka. Erdiek ez dute Sei Eguneko Gerra [arabiar herrialde zenbaiten eta Israelen artekoa] eza-gutu, adineko arabiarren mentalitatea forjatu zuena. Gazteak beste *roilo* batean dabilta. Ikasi dute eta lan egonkor eta duina nahi dute, moder-

nitarearen parte izan nahi dute: Internet... Haatik, antzinako diktadurek gobernatuta daude, praktikan erregimen arabiar guztiak hala dira. Beraz, lehen ez zegoen oinarri gazte informatizatu horrek —exageratu gabe, analfabeto asko baitago— esplikatzen du, esaterako, azken manifestazioetan Israelen eta AEBen aurkako oihurik ez izatea. Duela 30 urte hori zen lehen oihua. Orain aldiz, lehenik barne arazoak nahi dituzte konpondu, diktadoreak kendu eta bakean utz ditzaten.

Libia hizpide: NATOren interbentzioa populazioa defendatzeko da, edo bestelako interesak daude?

Interbentzio hauek borondate onenarekin eginda ere, alegia, populazioa babestea, Mendebaldearen zinismoa ageri-agerikoa da. Zergatik interbenitzen da hor eta ez populazioa lur jota dagoen beste herrialdetan? Begibistakoa da, Libiak petrolio dauka. Alabaina, petrolioaren honezkero lortuta zegoen. Libiako petrolioaren %85 Italia, Frantzia, Britainia Handia, Alemania eta Espainiara dator. Libiako petrolio ustiatzen ari diren konpainia ia guztiak europarrak dira. Repsolen negozioen %5 Libian dago. EMI italiarra ere bekainetaraino sartuta dago. Herrialde hauek ez dira petrolio bila gerran ari, petrolio bazuten eta. Izatekotan, galtzeko arriskua

hartu dute. Gaddafik esan duenez, irabazten badu, txinatar, brasildar edota indiar petrolio-konpainiak sartuko dira Libian. "Kasualitatez" herrialde hauek Segurtasun Kontseiluan abstenitu egin dira. Esan nahi dut: europarrak al gara beti gaiztoak? Enpresak ditugun bakarrak? Gainerakoak espiritu puruak al dira? Ez dute jaten ez edaten, ez doaz komunera, ez dute petroliorik behar? Hara, herrialde horiek populazio zibila babesteko ebazpenean abstenitu egin dira. Badirudi beraiei ez zaiela jendearen babesa axola. Mendebaldeak hanka sartzen badu, beraiek hartuko dute petrolio eta inork ez du deus esango?

Zergatik sartu da orduan Mendebaldea gerran, NATOren bidez, oro har?

Bada, modu batean, buruko *kakao* itzela duelako, munduan giza esku-bideen defendatzaile bakarra bera dela uste duelako. Horrek kontraesan pilo batean sartzera behartzen du. Izan ere, zergatik defendatzen ditugu interbentzio militarren bidez giza eskubideak Libian, eta ez Gazan edo Saharan? Kontzientzia txarraren ondorioz buru-nahaste izugarria dago Mendebaldean. Gaddafiren agintaldia azken zazpi urteetan sostengatu izanak —ez agintaldi osoa, ez ahaztu Gaddafi isolatua izan zela 30 urtez— kontzientzia gaiztoa eragin du.

Zer aukera du Gaddafik eusteko?

Egoerari eusteko ahalmenik badauka, hasteko, errebeldeek armamentu txarra dutelako, metrailadore pare bat eta mortero batzuk besterik ez. Errebeldeak gaizki antolatuta daude. Gaddafik, gutxienez, presidentziako goardia —bere goardia pretoriarra— ondo armatuta eta trebatuta dauka. Horrelako 4.000 soldadurekin, azkenera arte borrokatzeko prest direnak, Gaddafi ez du inork Tripolitik botako. Bere ahulezia izan daiteke bere zirkulu hurbi-leko jendeak traizioa egitea.

Saddam Hussein eta Irak heldu zaizkit gogora.

Saddam Husseinen kasua misterio handia da niretzat. Zergatik desafiatu zituen AEBak beharrik gabe? Suntsitze masiboko armak ez bazi-

tuen, zergatik ez zituen utzi sartzen NBEko ikuskatzaileak Iraken?

Libiakoa ez al da egoera bera?

Ez. Baina Gaddafi harro-harro dago. Eta, kontuz, historia ondo irakurtzen ari da. Bush-ek Iraken egin zuen hanka-sartzea hain handia izan zenez, nazioarteko harremanak hankaz gora jarri zituenenez, “giza interbentzioa” delakoa horrenbeste despregiatu zuenez, Libiako interbentzioa Irakekoa bihurtzeak ezinezkoa dirudi. NBEko Seguritate Kontseiluak ez du Irak inbaditzeko eman zuen baimena eman. Gaddafik “kontuak blokeatzen dizkidatela, tira...” pentsatu du. Ez ahaztu 30 urtez kontuak eta armak blokeatuak izan zituela. Gaddafik interbentzio militarra gogortzea nahi du.

Nola ulertzen da Mendebaldeko herrialde boteretsuek Gaddafirekin orain gutxi arte izandako harremana?

Gaddafik Libiako boterea hartu zuenean entrenatzeko zelaia eta dirua eman zizkien hainbat talderi, talde terrorista deituei. Askotariko talde hauek dirua eta armak jaso dituztela frogatuta dago. IRAren kasua libiarrak ez dute ukatzen dagoeneko. Garai hartan hainbat atentatu izan ziren eta Libiari leporatu zioten atzean egotea. Horrek ekarri zuen NBEk (1980ko urteetan) neurriak eta zigorrak ezartzea Libiari. Libia isolatuta geratu zen mundutik —nahiz eta merkataritza tratua izan, eta Europan petrolio saltzen segitzen zuen—. Blokeoa 2003an bukatu zen, Gaddafik *mea culpa* moduko bat egin zuenean. Suntsitze masiboko

armak egitea pentsatua zuela, baina asmoari uko egin ziola esan zuen. Eskoziako Lockerbien (1988an) erori zen Pan Ameko hegazkinean hil ziren 259 biktimen konpentsazioak —nahiz ez duen Libiaren egiletasuna onartzen— milaka euroz ordaindu zituen. Gaddafik “ona” izan nahi zuela adierazi zuen. Orduan, petrolio daukan herrialde batekin negozioak egitea biziki laketgarria egin zitzaion herrialde europar-

“Gaddafi harro-harro dago. Eta, kontuz, historia ondo irakurtzen ari da”

rrei berriz ere. Repsol eta EMI burubelarri aritu dira. Ondoren, episodio *xelebreak* heldu dira, Berlusconi lagun mina egin da, putetxetara elkarrekin ere joan direla pentsa daiteke. Gaddafiren txisteei irri egin diete, nazioarteko ekitaldietan parte hartzea baimendu zaio, eta logikoki negozioak —nazionalak nola pertsonalak— egin ditu. Noski, orain Mendebaldeko herrialdeek diote “Gaddafik ona izan nahi zuen”. Dirudienez, “goazen poliki-poliki, eman diezaiogun bigarren aukera” pentsatu dute berriz ere.

Mendebaldeak Al Kaeda erabili ahal izan du Gaddafiren aurka?

Ez. Errebolta hasi zenean, Gaddafik Al Kaeda akusatu nahi izan zuen Libian gertatzen ari zenaz. Zur eta lur utzi gintuen denok. Gaddafik bere herrialdean zeuden talde islamisten aurkako bere-berezko gerra eramane du, bere botererako mehatxua zirelako. 1980ko hamarkadan

ekin zion horri jada, Mendebaldearekin adiskidetu baino lehenago gainera. Gaddafi mendebaldarren aliatu da Al Kaedaren aurka, berari ere ez baitzaio islamisten garaipena interesatzen.

Iraken gertatua bestelakoa izan zen.

Saddam Hussein eta Iraken arteko auzia ezberdina izan zen. Hussein Iranen aurkako gerran sartu zenean (1980-88 urteetan), mendebaldarren orduko irakurketa nagusiaren arabera Aiatolak gaiztoak ziren. Mendebaldeak aiatola guztiak suntsitzeko baimena eman zion Hussein, eta, ordainetan, nahi zuena eska zezakeela hitzeman ere bai.

Aldatu da zerbait ordutik hona?

Ez. Ben Ali, Mubarak edota Gaddafiren erregimenak laikoak dira. Herrialde musulmanak dira, populazioa musulmana da. Hala ere, agintari hauei interesatzen zaienean Ala deitzen dute. Eta batzuetan, behar dutenean, banderan Koran-aren berretak jartzen dituzte. Erregimen militarrek dira batez ere, Iran salbuespena da. Turkian ere, nahiz herrialde arabiar ez izan, musulmana da, armada eta apaiz islamiarrek ezin dute elkar ikusi, proiektu diferentek ordezkatzen dituzte, bata besteari boterea kendu nahi dio. Iranen armada apaiztu egin dela konturatu dira, aiatolek agintzen dutela nolabait. Gainerako herrialdeek estatua eta erlijioa ondo bereizten dituzte, militarrek boterean egon nahi dute aiatolek muturra sartu gabe. ■

argia.com Webgunean NBEri buruzko bere ikuspuntua.



txondorra
erretegia

© 943 794 276
Bizkaia pasealekua, 9
Arrasate (Gipuzkoa)

Fukushima

Emigratzea da bide ziur bakarra japoniarrentzat

Azken hogeit urteotan energia nuklearraren inguruko erakunde gehienek zientziaren aurrerapena izan dute argudio nagusia energia mota horren segurtasuna eta lehiakortasuna gizarteratzeko. Lan ona egin dute eta istripu aipagarririk izan ez denez, oso ongi posizionatu dira etorkizuneko energia iturrien rankingean. Baina Fukushiman gertatu denak, gertatzen ari denak eta gertatuko denak hankaz gora jarri du munduko lobby nuklearrek erabilitako komunikazio estrategia.

JOXERRA AIZPURUA

JOAN DEN MENDEKO 70eko hamar-kadan gizartean pil-pilean izan ziren galderak berriro bere horretan itzuli dira bat-batean. Antza, ez da deus ere aldatu azken berrogei urteotan, ez segurtasunaren inguruan, ezta teknologia aurrerapenean ere. Azken finean, hogeit urteotan deus gutxi gertatu izana zorteari egotzi beharko geniokeela dirudi.

Lerro hauetan datu tekniko gutxi emango ditugu, gehienak ongi ezkutatuta daudelakoan baikaude, izan ere; arazoak hasi eta hiru asteotan idatzi eta esan direnei buruzko azterketa egitea da gure saiakera. Zentzu komunak agintzen duen ikuspuntutik helduko diogu, eta puntua jarrita arituko gara, aurretik hedabideetatik eman zaigun informazioa baliatuz.

● Esan ziguten lurrikararen eta tsunamiaren ondorioz Pazifikoko zentral nuklear gehienak hozte-sistematik gabe geratu zirela, eta handik egun batzuetara Fukushiman leherketa batzuk gertatu zirela, baina guztia kontrolpean zegoela.

Fukushimako erreaktoreetan hozte-sistemak porrot egin zuenez, erregeia hozten zuen ura lurrindu egin zen eta etxeko sukaldean inoiz gertatu izango zitzaigunaren antzera gertatu zen, hau da, presio-eltzea lehertu eta bere baitakoa sukalde osoan barreiatzea; baina erreaktore nuklearraren barnean dagoena ura, uranioa eta pluto-

nioa direnez, erreaktoreak lehertu zirenean ur-baporea atera zen, eta erregeia erradioaktibitatea askatzen hasi zen eta etengabe askatzen ari da, fisio nuklearra, nik dakidala behintzat, Fukushiman gertatutako baldintzetan abiatzen denean, gera ezina delako. Beraz, erradioaktibitatea atera zen, ateratzen ari da eta ateratzen jarraituko du harik eta erregeia guztia agortu arte.

● Itsasoko uraz bustiz, erreaktoreak pixka bat hoztea lortu dute.

Itsasotik ponpatutako uraz tenperatura zertxobait kontrolatzea lortzen

dela egia da, baina ur hori, gehiena bederen, itsasora itzultzen da, beste zerbait lurrindu egiten da eta erregeia-piszinetan geratzen denak, bertan dauden tutueriak eta tresnak oxidatuko ditu. Beraz, erradioaktibitatea airera emititzea bolada baterako apaltzea lortzen bada ere, zentrala inguratzen duen itsasoko ura lehenago poluitzen da, eta erreaktorean dauden tresnak ere behar baino lehenago eta gehiago oxidatuko dira.

● Eskerrak lehen unean behintzat erradioaktibitateak Pazifikoranzko bidea egin zuen.

Erradioaktibitate motak

Erradioaktibitatea naturala edota eragindakoa izan daiteke. Eskuarki, hiru eratak da: alfa, beta edo gamma. Lehenengo biak ez dira gai aluminiozko geruza bat zeharkatzeko. Hirugarrenak batere arazorik gabe zeharka dezake baita hormigoia ere. Beraz, erradioaktibitate kaltegarriaz hitz egiten denean, gamma izpiez ari gara nagusiki.

Erradioaktibitatea neurtzeko erabiltzen den unitatea sievert (Sv) da. Eguneko 0,00012 mSv/h baino gutxiago jasotzen duen pertsonak ez du osasun arazorik, baina hortik aurrera faktore desberdinak kontutan hartu behar dira: zenbat denbora irauten duen esposizioak; zenbat jasotzen den orduko, eguneko edota urteko; pertsona horrek zenbateko babesaren duen, erradiazioa akumulatiboa baita, eta kaltea pilaketaren arabera baita.

A dibidez, zentral nuklearretan lan egiten duten langileek jasan dezaketen erradioaktibitate kantitateak 5 urtetan 100mSv baino txikiagoa izan behar du, urterokoa 50mSv baino handiagoa izan gabe. Martxoaren 31n, zentrallean 1.000 mSv orduko erradiazioa zegoen eta inguruko itsasoan normala baino 4.000 aldiz handiagoa, eta gainera gorantz doa.



Lehen uneetan mendebaldeko hai-zeak jotzen zuen eta erradioaktibitateak nagusiki Pazifikorantz egin zuela egia da, baina leherketa gertatu eta egun batzuetara Pazifikokoan sortutako borrasak Japoniako ekialdetik zetorren haizea hoztu eta berriro Japoniara itzuli zuen, iparretik elur eran. Elur hori elur erradioaktiboa zen eta elurra egin zuen eremuetako lurrak erradioaktibitatez kutsatu zituen. Kutsadura zenbaterainokoa izan zen ez dakigu, ez Japonian eta ez hemen.

● **Fukushima zentraletik 20 km-ko erradioan dauden lurrak hustu egin ziren, eta orain gutxi, 30 km-ra zabalduta da erradioa, bada ezpada ere.**

Erradioaktibitatearen hedapenean haizeen norantzak garrantzi handia du eta normala da lehen unetan 20 km-ko erradioan dauden

eremuak hustea, baina egoera luzatuko denez, erradio hori pixkanaka handitzen joango da eta hemendik hilabete batzuetara Tokio ere ukitzea ez litzateke harrigarria izango, haizeen edota euriteen eraginez.

● **Zentralean lanean ari diren langileak kamikazeak omen dira; Plutonioa topatu omen dute behar ez zen lekuan, baina dagoen bezala ez da arriskutsua gizakiarentzat; egoera kontrolatu nahian gabilta, baina oraindik egoera larri baten aurrean gaude eta larriagoa ere izan daiteke.**

Berriemaileek mota honetako esaldiak aipatzen dizkigute egunero. Egia da zentralean lanean ari diren langileak hil egingo direla, batzuk lehenago eta besteak beranduago, baina gehienak jasandako erradiazioaren eraginez hilko dira.

Plutonioa espero ez zen lekuan topatu izanak zera adierazten du: zentral horretan gauzak ez zirela behar bezala egiten, kontrol neurriak aski makalak zirela. Edo bestela, materialak ezagutzen ez duten toki batetik ihes egin diela. Arriskutsua den ala ez, ez dakigu. Egoera larria dela eta gehiago larritu daitekeela esatea zentzu komuna aplikatzea da. Ziur naiz esaldi horren bidez egia esaten ari direla; alabaina, ez zaigu esaten zer izan daitekeen egungoa baino larriagoa. Hori ere azkar baino lehen jakingo delakoan nago.

Hildakoen kopuru erreala

Japonian, orain arte tsunami eta lurrikararen ondorioz hil direnak 30.000 inguru izan dira iturri desberdinen arabera, baina heriotza kopuru horri Fukushima hilko dituenak gehitu beharko zaizkio. Oso zaila da hori jakitea, jendea hemendik bi, bost edota hamar urtera hilko baita eta hurrengo belaunaldietan ere agerikoak izango dira ondorio fisiko eta neurologikoak. Baina zeintzuk hilko dira? Gure ustez, jarraian datozenek osatuko lukete arrisku-multzoa: Fukushima lanean ari diren langileak edota hauekin harreman fisikoa dutenak, erradioaktibitatea duen elikagairik jaten dutenak, haizeteen eraginez erradioaktibitatea jasango dutenak (nahiz eta ehunka kilometrorra bizi)...

Errazagoa zaigu erantzutea ondoko galdera honi. Nortzuk irtengo dira bizirik? Gure ustez, Japonia utzi eta beste lurralde batera emigratzen dutenak. Horixe du Japoniak aukera erreal bakarrenetako: emigratzea. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Saad Salloum

Irakiar etnien eta herrien ikerlaria

«Petrolioa ez, kultur aniztasuna da irakiarren altxorrik handiena»

Saad Salloum unibertsitate irakaslea da Iraken eta hango gutxiengoak jorratzen dituen aldizkari baten burua da. Bagdaden elkarrizketatu dugu filantropoa.

Testua eta argazkiak:

KARLOS ZURUTUZA

“MIRARIA deritzot zuen hizkuntza bizirik egotea XXI. mendean. Zorionak!”. Hala esan zigun Salloumek bere elkarrizketa euskaraz argitaratuko zela esan genionean. Ikerlari gazteak ederki asko daki mundu uniformatzaile hau zaila oso gertatzen zaiela herri “txikiei”. Eta zeresanik ez, Iraken...

Nortzuk dira irakiarrak?

Irak oso herrialde anitza da. Makina bat kultura eta hizkuntza daude: arabiarrek, kurduak, turkmenoak, kristau asiriarrak, mandearrak... Gaur egungo eta betiko irakiarrak dira horiek.

Baina euren arteko harremanak korapilatsuak izan ohi dira, ezta?

Kontua da, Ekialde Hurbilean etnia eta erlijio kontzeptuak estuki lotuta doazela. Arabiarren artean, xiitak eta suniak bereizten ditugu. Irakeko bigarren taldea kurduak osatzen dute. Gehienak musulman suniak dira baina, kasu honetan, “kurdu” deitzen diegu, eta ez “suniak”.

Eta gainontzekoak?

Kristauak euren hizkuntza dute, asiriera, eta hamalau azpitaldetan banatzen dira; kaldearrak, armeniarak, ortodoxoak... 2003. urte aurretik milioi batetik gora ziren. Berebiziko errepresioa jasan dute



“Oztoporik begibistakoena zera da, irakiarren nortasun agirian gure erlijioa agertzea. Horrek diskriminazioari ateak zabalik uzten dizkio”.

eta erdiak baino gehiagok alde egin du Iraketik.

Turkmenoak, mandearrak...

Turkmenoak turkieraz mintzo dira. Erdi Aroan iritsi ziren, Otomandar Inperioa zabaltzearekin batera eta xiitak nahiz suniak izan daitezke gaur egun. Mandearek San Joan Bautista dute profeta. Askotan esan ohi da kristauak direla, baina beraiek ukatu egin dute beti, Kristoren jarraitzaileak ez direla diote. 2.000 urte baino gehiago daramatzate Tigris eta Eufrates ibaiertzeta-

ko toki beretan zeremoniak egiten. Nekez izango dira 20.000 gaur egun. Kristauak bezala, sekulako zigorra jasan dute azken urteotan.

Eta jazidiak?

Diotenez, beraiek dira kurduen jatorriko erlijioa egundaino mantendu dutenak. Denak kurdueraz mintzo dira, baina batzuek diote ez direla kurduak. Esan bezala, erlijioari ala etniari eustea da hemen gakoa. Irakeko iparraldean shabakh kurdu xiitak ere topa daitezke, baita kakaitarrak ere. Azken horiek sekre-

tupean mantendu dute euren sinis-
mena. Diotenez, berraragiztape-
nean sinisten dute. Dena dela, oso
zaila da fede horren ezaugarriak
ezagutzea.

Beste etnariak ba al da?

Irakeko beltzak izan daitezke
herrialdeko talderik ezezagunena.
VII. mendeaz geroztik daude Meso-
potamian, gehienak esklabo ekarrita
Afrikatik. Multzorik handiena Per-
tsiar Golkoan dagoen Basora hirian
dago, 300.000 lagun ingurukoa.
Herrialdean mila urtetik gora eman
arren, diskriminazio itzela jasaten
dute azalaren koloreagatik. Orain
ere, “*abd*” (“esklabo”, arabieraz)
deitzen diete askok. Obamaren
garaipena kalean ospatu zuten Ira-
keko beltz askok. Euren eskubideak
eskatzen ari dira; funtsean, kurduak,
xiitek, suniek eta kristauak duten
errekonozimendu bera nahi dute.

Juduak ere badira Iraken, ezta?

Juduak izan dira, hain justu, Irakeko
intelektualik handienetako batzuk.
Tamalez, gehienak Israelera joan
dira eta hamahiru besterik ez omen
daude. Egundoko ezjakintasuna
dago Iraken talde horri buruz.
Duela gutxi juduei buruzko eskola
bat eman nien unibertsitateko ikas-
leei. Bukaeran zera galdetu zidan
batek: “Baina zer dira juduak, xiitak
ala suniak?”.

Antza, alde egiteko joera nahiko oro- korra izan da gutxiengoaren artean hemen.

Oso urte zailak izan dira azken
hauek, batez ere talde txikientzat.
Talde horiek Al Kaedaren, segurta-
sun indarren edo bestelako talde
armatuen erasoak jasaten ari dira
etengabe. Kurduak, jazidiek, kris-
tauek eta turkmenoek hainbat eser-
leku gordeta dauzkate Irakeko Par-
lamentuan. Irakeko Kurdistango
Parlamentuak, hain justu, eserle-



“Beltzek Iraken mila urtetik gora eman arren, diskriminazio itzela jasaten dute”.

kuen %10a bereizten du eskualdeko
kristau, jazidi eta turkmenoentzat.
Irakeko Kurdistan kristau askoren
jomuga bilakatu da azken urteotan.

2005eko Konstituzioak dio
“hainbat nazio, erlijio eta sekta”
daudela Iraken, baina erlijio askata-
suna ez da gauzatzen eguneroko
bizitzan. Oztoporik begi bistakoena
zera da, irakiarron nortasun agirian
gure erlijioa agertzea. Horrek dis-
kriminazioari ateak zabalik uzten
dizkio. Kontraesan handia da hori,
Irak ez baita Errepublika Islamikoa.
Nolanahi, nortasun agiria erakutsi
gabe ere, berehala bereiz daitezke
izen kurduak eta kristauak, baita xii-
tak eta suniak ere. Esaterako, Ali
izena oso ohikoa da xiiten artean;
Omar, ordea, suniek dute gogoko.

Zerk hobe lezake, zure ustez, Irakeko herrien arteko elkarbizitza?

Lehenik eta behin, Konstituzioan
jasotako legedia errespetatzea,
Gobernutik hasita. Xiitak dira nagu-
si Iraken. Kristauak, jazidiak edo
mandearrak, besteak beste, eraso-

tzen dituztenak, epailearen aurrera
eraman beharko lituzkete. Eraso-
tzaileak maiz soldatapean dauden
Gobernuko sikarioak dira.

Gobernua dagoen koalizioa bi
alderdi xiitak osatzen dute, horieta-
ko bat Moqtada al-Sadr-en alderdia
da, Teheranekin oso lotura estua
duena. Xiitak ez direnak aginte edo
segurtasun postuetatik baztertuak
izaten dira. Izan ere, gaur egun
Gobernua ari da ezartzen Iraken
zehar zabaltzen ari den joera erli-
jiosoa.

Alabaina, funtsean, hezkuntza da
hemen gako nagusia. Hamaika herri
eta zibilizazioen etxea eta bidegu-
rutzea izan da Mesopotamia men-
detan. Petrolioia ez, kultur aniztasu-
na da irakiarron altxorrik handiena.
Jendeak honela ulertu ezean, jai
dugu.

Barkatu, bukatu aurretik gero eta
handiagoa den gutxiengo baten
berri eman nahi nizuke.

Noren berri?

Jainkoagan sinisten ez dugunona. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB



Sagunt eta Alacanten 17.000 lagun elkartu dira topaketetan.

Escola Valencianaren topaketak abian dira

ABIAN DIRA Trobades d'Escoles en Valenciá. Escola Valencianak apirila manifestazioarekin hasi du, irakas-

kuntza publikoa valentzieraz egiteko eskubidea aldarrikatuz. *Trobade* edo topaketek ordea aldarrikapenaz gain festa giroa biltzen dute, eta horrela, ekainaren 4a bitartean Valentziako hogei bat herritan ikasle, guraso eta irakasleak tailer eta kultur ekitalditan elkartuko dira. Udaberri oro ia 100.000 lagunek hartzen dute parte valentzieraren aldeko aldarrikapen honetan.

Bataren eta bestearen kontzientzia (eza)

AUTOKO GIDARIA eta ondokoa gaztelaniaz ari dira. Biek dakite ondo euskaraz. Haien artean egiten dute

gaztelaniaz, autoko gainerako kideekin euskaraz ari dira. Halako batean gidaria ezagutzen ez duen bidaia batek albokoari esan dio: "Hau izango da taldeko e-posta zerrendatik euskaraz ez dakien bakar hori". Eta albokoak: "Ez, honek euskaraz badaki". "Eta zergatik ari dira gaztelaniaz?". Besteak sorbaldak jaso ditu. Berriz ere galdezka ari denak: "Egia, euskaraz ez dakiena taldeko hegoamerikarra izango da. Baina orduan nola idatzi zuen e-posta euskara perfektuan?". Hegoamerikarrak lagun bati eskatu dio posta zerrendara bere mezua euskaraz bidaltzeko, ez du puzzlea izorratu nahi.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

Maria Jesus Aranburu Gipuzkoa-ko Kultura eta Euskara diputatuak *Euskonews & Median* esanak: "Euskaraz asko sortzen da eta sortzen den horri irtenbide bat eman behar zaio. Adibide bat ipintzearen; ikus-entzunezkoetara jotzen baldin badugu, gaur egun gaztetxoek zer ikusten dute telebistan? Ba gustatu edo ez gustatu Hannah Montana, adibidez. Guk hemen sortzaileak izanik, baliabideak izanik, zergatik ez dugu horrelako produktu arrakastatsua egiten? Guk esaten dugu behin eta berriro nahita nahi ez esparru batzuk kanpoan sortutako informazioarekin etorriko zaizkigula, baina esparru horiek ere bete behar ditugula geure edukiekin".

Ludger Meesek *HABE* aldizkarian esanak: "Nire ustez zailtasuna [euskara ikastekoa] neurri handi batean mito bat da; mito bat eta aitzakia bat ikasi nahi ez duten pertsona askorentzat. Hala eta guztiz ere, puntu batean egon nintzeke ados zailtasunaren tesi horrekin. Zergatik? Hasieran euskara ezagutzen ez duenak, ikasten hasten denean, ez daukalako heldulekurik".

TALAIAN

Fukushima Europako politikan hasi da eragiten

Fukushimako hondamendi nuklearrak ez ditu ibaiak, ura eta elikagaiak bakarrik kutsatu. Europako politika ere harrapatu du. Alemanian jada ikusi dugu. Hondamendiaren ondorengo lehen hauteskundeetan, Merkel kantzilerrak gotorleku garrantzitsuen galdu du, Baden-Württemberg. Lau erreaktore nuklear eta energia nuklearraren aldeko lehen ministroa dituen Land hori "berdeek" eskuratu dute. Bozka kopurua bikoiztu dute, %24ra iritsi dira eta lehen aldiz erregio horren giltza daukate. Porrot horrek beste arrazoi batzuk ere izan ditzake: politika ekonomikoa eta fiskala, euroaren eta Libiaren aurrean hartutako jarrera. Dena dela, ez dago zalantzarik; Merkelek energia nuklearrarekiko izan duen jarrera epelak hauteskundearen deskalabruan eragina izan du. Orain, Japoniako hondamendiaren ondoren, Merkelek hala esan du: "Energia nuklearrarekiko dudak jarrera dagoeneko ez da bera". Esan du, ekainean hiru hilabeteko luzamendu nuklearra bukatu arte itxarongo duela erabaki zehatzagoak hartzeko.

Hauteskundeetako ipurdikoak noraezean dabilzanek balioko die. Euskal Herritik gertu, Espainiako eta Frantziako Estatuetan, hamarnaka erreaktore nuklear daukagu. Eta hauteskunde orokorrak hurbil daude. Fukushima deskalabrua baino lehen, energia nuklearra mantentzearen eta zabaltzearen aldeko jarrera indartsuagoa zen. Espainiako Estatuan Garoñaren bizitza luzatzeaz ere ari zen PSOE. PP zentral nuklearen beharraz mintzatzen zen. EAJk Ekonomia Iraunkorraren Legea babestu zuen, zeinak zentralen 40 urteko bizitza-muga bertan behera uzten zuen. Orain PSOEek energia berriagarrien alde egiten du berriz, eta EAJ eta PP, Garoñaz hitz egiteko ez bada, isilik daude. Ez Txernobylek, ez Hiroshimak, ez Harrisbourgek ez zioten eragin Europari. Fukushima eragiten hasi da. Eskerrak!

Juan Mari Arregi

Labankada garaian, argi bihotzarekin

SORTURI bidea itxi ondoren, urak aurreikusitako beste ubidetik hartu du beheranzkoa, ezker abertzalea, EA eta Alternatibaren indarrak bilduz. Polo soberanistaren eremutik gidoia betetzen ari da eta orain ikusi beharko da PSOEren gobernuak nola jokatu duen 9an Bilduk aurkeztuko dituen zerrendekin. Orain arte Sorturen inguruan ikusi dugunarekin, denak adierazten du PSOEk bere burua gorde beharko duela PPren erasoe-tatik eta Estatuko fiskaltzak zerrenda hauetako batzuen aurka joko duela.

Zalantzarik gabe, ezker abertzalea bakarrik aurkeztu izan den beste hauteskunde batzuetan baino gaitzagoa izango du fiskaltzak. Ez bakarrik Bilduko bi alderdi nagusienak, agerian bederen, EA eta Alternatiba direlako eta biak legezkoak; baita ere Auzitegi Goreneko 61. aretoaren ebazpenean, zazpi magistratuk oso gogor kritikatutako dutelako beste bederatzi ebazpena.

Ez da zalantzarik Bilduk boto asko lortuko dituela, ezkerreko abertzale askoren nahia betetzen dela urrats honen bidez, eta esperimenduaren botoak arreta handiz kontatuko dira alde guztietatik. Baina Bilduk ez ditu guztiak bildu. Eta guztiak biltzea beti gaitza bada ere, bistan da EAEn bederen ezker abertzaleko korrante bat kanpo geratu dela: Aralar. Hainbat arrazoiengatik, Aralarrek ez du bilgune horretara jotzeko beharrik ikusi, edo ez du baldintza egokirik izan, edo... Nafarroan egoera desberdina da, teoriarik bederen, han indar nagusia NaBai delako. Epe ertainera begira, eta indar metaketa oinarri, bieran antzera.



ARGAZKI PRESS / JUAN CARLOS RUIZ

Onerako edo txarrerako, botoek laster jarriko dute bakoitza bere lekuan, baina argi da –alderdien ziliborretik harago begiratu bederen– etorkizun hurbilean ez duela zentzurik horren antzekoak direnen indar xahutzea.

Alderdien begiradan, alabaina, oraingoa ez da hurbilketarako unea, orain labankada garaia da: sabelean, besoan, aurpegian... Hauteskundeetan saihestezina da hori, jokoaren barne da, ados. Baina adi bihotzarekin, giltzurrun edo gibela-rekin. Labankada hilkorrak kontrolatu beharko litzukete etorkizuneko batasun edo elkar lanerako ateak irekita utzi nahi dituztenek.

HAUTESKUNDEAK eta bake prozesu bat modu bateratuan eramatea ezinezkoa da, hori aspaldi ikasi zen hemen, eta hala gabiltza. Edo eraman bai, baina bakearen karrila geldotu egiten da publikoki. Kontua da ekainean, denbora galdu barik, berriz ekin beharko litzaiokeela bake prozesu formalaren eraikuntza publikoari. Sortu legeztatzea da lehen urratsa eta badirudi berandu baino lehen Espainiako Auzitegi Konstituzionalak emango duela urrats hori. Sortu legeztatu ondoren elkarriketa politikoa normaldu

beharko da eta bake prozesuan urrats eraginkorrak ematen hasi.

Hiru eremu handi bederen bereizi litezke gatazkaren esparru zabal horretan: bat, arazo politikoa bideratuko duen elkarriketa politikoa; bi, ETAren desegitearena eta, horri lotuta, preso eta iheslari politikoen egoera; hiru, bizikidetzaren berreraikitzea, biktimak eta elkarbizitzaren gai sakon eta arantzatsua. Ongi etorria Eusko

Legebiltzarrean biktimen esparruan aurrerapena dakarren guztia, baina lehenbiziko bi urratsetan aurreratu barik, ezinezkoa da bizikidetzaren eremu horretan egiazko urratsik ematea.

PPn eta PSE-EEn oraindik erraie-taraino sustraitua dago garaile eta garaituen diskurtsoa; eta ezker abertzalean ere, oraindik orain, askok eta askok pentsatzen du estrategia armatuaren desegokitasuna egungo ahuldadean dagoela eta ez trantsizioaren ondorengo hautu okerrean. Gizarte eztabaida sakon eta indartsua behar da iraganeko zauri horiek behar bezala ixteko... eta etorkizuneko borroka politikoaren arauak baldintzarik gabe, modu bateratu eta askean finkatzeko.

Hamarkadetako gatazka bortitza bizi izan du euskal gizarteak, eta armak isildu direnean, arazo politikoekiko ostrukarena egiteko tentaldia handia izan daiteke askoren aldetik. Hiruzpalau adabakirekin hau konponduta dagoela ere pentsa dezake askok. Etorkizunerako eraikitzaileena, aldiz, zera litzateke: armekin baino, ETAk hauen isiltasunarekin lortu duela bake prozesu sendoa aktibatzea. Basagoiti Robinsonen bidean murgiltzea da euskal gizartearen une honetako erronkarik sendoenetakoa.

Norabide argian, uztarrian

Bidea ibiliz egiten da. Are gehiago, dabilzanek egiten dute bidea, ez beste inork. Euskal Herrian hasiak gara bestelako bidea ibiltzen, birit-bilgunean denbora luzea eman ostein. Baina inoiz ez da berandu bide berrian abiatzeko, norabidea sen politikoaz ondo zehaztuta badago. Izan ere, urratsetan dudazko asko izan daitezke gerora begira, baina gauza bat dudagabea da: norabide argi batean izango direla, izatekotan. Ezker abertzalearen apustu berriak Altsasu izan zuen abiapuntu, eta inflexioak berez zituen arriskuak estrategia eraginkorrerako aukera bihurtzeko borondatea izan zuen oinarri. Urrats hark beste batzuk ekarri ditu, loturak askatzen dituen katean.

Aldebakarrean hasi zen bidea, inoren zain geratu gabe. Horixe giltza, batzuen eta besteen jarrera ulertzeko. Hortaz, Estatuaren erabakiek ez dute gehiago mugatuko ezker abertzalearen bidea. Estatuak oztupoak jartzeko ahalmena badu, bistakoa da, ez ordea abilezia. Aztoratuta dirudi, barruko urduritasuna azaleko balizko irmotasunez mozturrotu nahian. Jakin badaki konfrontazioa datorrela, gutxien nahi zuen eremura etorri ere. Gero eta gehiago da Okerbide Estatua, askoren aburuz, hemen, han eta kanpoan. Ezker abertzalearen zatiketa espero, eta behar, zuen Estatuak, konfrontazioari begira independentistontzat zama astunegia izango zelakoan, eta berarentzat arrisku onargarria. Baina ez da halakorik suertatu, eta zirrikituak zabaltzekotan euren lerroetan zabaldu dira, hemeroteke iturri, togadunen artean bertan ere.

Formazio politiko berriaren beharra du ezker abertzaleak. Horixe ere mandatua, *Zutik Euskal Herria* ebazpenarena. Noizbait gauzatuko den mahai politikoan izateko bide. Formazio berria, politika bera



DANI BLANCO

ulertzeko modu berriturako tresna. Apustu estrategiko baten barruan beti ere, epe motzekoa luzerako bidean hartzen duena. Hortaz Sortu, han, legez kanpo utzi badute ere, momentuz, hemen zilegi dihardu bidea egiten, aurpegia agerian, legalizazioaren bataila irabazita dagoelakoan, han atzeratzen saiatu arren. Hortaz, gero eta zabalagoa da Hego Euskal Herria eta Espainia bereizten dituen lubanarroa. Badirudi aparteko garrantzia ematen dietela handik datozen hauteskundeei, nonbait ezker abertzalerik gabeko hauteskunde-zikloa ixteko irrikitan daudela. Estatuaren arrazoiak arrazoi, etorriko diren hurrengo hauteskundeei begira denbora irabazi nahian edo, hemengo denbora handik kontrolatuko balute bezala.

Bitartean, aldebakarrean hasitakoa aurrera doa, gizentzen, bidean konpromisoak gauzatuz eta, ondorioz, bidaideak bilduz, horixe jarri baitzen helbide, eragile aktiboak metatu eta pasiboak aktibatu, atzekoz aurrerako norabide argi batean. Ezker zabaleko aktiboen fusio beroa, aldaketarako giltza. Biltze horrek hauteskundetan behar du izan, Sortu legala izan edo ez, ezker soberanistaren subjektu politiko zabal bezala, konfrontazio demokratikorako parametro sozio-politikoak eta sozio-ekonomiko nagusiak programa-ardatz ipinita. Euskal Herria bai, baina ezkerretik. Euskal Estatua lortu arte, baina ezkerretik.

Eraginkortasuna eta sinesgarritasuna txanpon bereko bataillak dira. Batak bestea behar du. Hortaz, ganorazko proiektu politikoak hiru ardatz bildu behar ditu: instituzionala, kalekoa eta ideologikoa, hirurak uztarrian. Uztarri hori eguneroko jardueran oinarri hartzen duen proiektu politiko partekatua funtsezko tresna da arlo politikoan zein sozialean ditugun erronkei eusteko, espetxe-politikatik hasita. ■

Ganorazko proiektu politikoak hiru ardatz

bildu behar ditu: instituzionala, kalekoa

eta ideologikoa, hirurak uztarrian.

Uztarri hori eguneroko jardueran oinarri

hartzen duen proiektu politiko partekatua


funtsezko tresna da arlo politikoan zein

sozialean ditugun erronkei eusteko,

espetxe-politikatik hasita

ASTE HONETAKO

zozketa




Iriarte Jauregia

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Eliz-Bailara, 8
Bidegoian GIPUZKOA

www.iriartejauregia.com

1



Iruñeko Planetarioa

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

2



Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museooteiza.org

3



Inguru Abentura

Maiatzaren 8an
Arabako Antoñanan
3 bikoteentzat
arroila jaitziera (1. maila)

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA
www.inguruabentura.com

4



Kirolaz Badakit

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2270. Argia)

URBANO JATETXEA

- Maria Jesus Makazaga Martija (Elgoibar)

GIPUZKOA INDOOR KARTING

- Raku Taberna (Tolosa)
- Juanjo Barandiaran Arratibel (Donostia)
- Martin Mendizabal Garai (Donostia)

ZIZTADAK

- Leioako Udal Euskaltegia (Leioa)
- Iñaki Zipitria Urkizu (Lezo)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Kepa Zamalloa Ozerin (Oiartzun)
- Eider Illarramendi Azkue (Zarautz)
- Inazio Usarralde Arantzadi (Lazkao)
- Jaione Goienola Guarrotxena (Galdakao)

JORGE OTEIZA FUNDAZIO MUSEOA

- Sabin Argarate Unzilla (Elgoibar)
- Xabier Aranburu Zinkunegi (Donostia)
- Javier Iraeta Narbaiza (Durango)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

maitatu, ikasi, ari...
eskalayera

BADATOR!



17. korrika

TREBIÑU-DONOSTIA 2011ko apirilaren 7tik 17ra